



Elkarrizketa:
JON LARRINAGA >

“Euskadiko talde batean geratzea posible ez bada atzerrira joan beharko naiz” 12. or

Jendartea

Heriotza bizitzeko moduak aldatzen ari dira eskualdean ere 7. or.

Kirola

Azaroaren 10ean egingo da XXXVII. Gorobel mendi ibilaldia 12. or.

Iritziak:

IÑAKI ALDEKOA 2. or.
KOLDO
URKIXO 6. or.
KOLDO GILSANZ 7. or.
GARAIZ
LARRAKOETXEA 10. or.
LUIS VIL 12. or.
JOSE MANUEL
ETXEBARRIA 11. or.
AINHOA COMAS 16. or

aiaraldea



Aiaraldeko hamabostekaria
2013 /// Urriak 30 ///
ASTEAZKENA
3. alea ///
Doan ///
www.aiaraldea.com

Tokiko merkataritza sustatzeko moneta berria martxan jarriko dute: “ogerlekoa”



ERREPORTAJEA: Mikologia Perretxikoek elikatze funtzioaren atzean ezkutatzen dituzten gaitasun terapeutikoak **ELKARRIZKETA: Jose Maria Ibarbiari** 8-9 or.

Izan zaitez berbalagun

Lagundu nahi diguzu?

Euskalduna bazara eta ikasten ari denari laguntzeko prest bazaude, astean ordu bete eman dezakezu mintzapraktika egin nahi duten lagunekin, solasean eta giro onean.

Partaide guztiek UPV-EHUko kredituak eskuratu ahal dituzte, UEUn deskontuak, AIZUL, ARGIA eta BERRIA merkeago...

galdetu zure herriko **EUSKALTEGIAN** edo **UDALEKO EUSKARA ARLOAN**

praktikatu gurekin!
www.praktikatu.org

indartu zeure euskara eta lagundu euskara indartzen!
eman izena!

hemen ari gara euskaraz bizi nahi dugulako!




_iritzia



Andoni
Aldekoa
KAZETARIA

_Balkoitik

Meritu handikoa ez, epikoa

Aiaraldea Egunkariak txoko honetan idaztea proposatu zidanean, parte hartze-ko konpromisoa hartu nuen, zergatik?

Komunikabideetan hazi nintzen profesionalki. Laudion, Radio Euskadi eta Radio Vitoriaren korrespontsal gisa, eta gero Radio Bilbaoko informatiboetako erredaktore moduan. Ondo baino hobeto dakit zein zaila den tokian tokiko informazioa egitea.

Komunikabideak historia oso-ko krisirik larrienetako bat jasan ari dira.

Komunikabide handiak kaze-
tariak egoitza nagusietan bil-
tzen ari dira, kanpoko eremue-
tatik erretiratuz, eskualdeko
eta tokiko erredakzioak hustuz,
sare deszentralizatu hori man-
tentzea oso garestia baita.

Ondorioz, makina bat komunikabide desagertu dira azken hiru urteotan. Garai batean, Bilboko geltokira iristean, erasoka oldartzen zitzaizkigun doako 3-4 egunkari emateko. Orain bat besterik ez dago, eta goizeko 8:30erako agortzen da.

Aiaraldeak esparru hori bete nahi du. Meritu handikoa. Baina Euskadin egin nahi du. Meritu handikoa ez, epikoa esango nuke. Aniztasunean eta egiaz-
kotasunean oinarrituta aurre-
ra egingo duen esperoan, ko-
laboratzen saiatuko naiz, az-
ken hamarkadetan bildu dudan lan-esperientzia egunkari hone-
tan hurbilduz, nire lanari buruz-
ko gogoetak barne —gaur egun,
Bilboko Alkatetzan—, gure ha-
ranetako errealitatera eta etor-
kizuneko premietara egokitze-
ko asmoz.



Eva
Komertziala

Nire ustez jendea edozein leku-
ra joateko librea izan behar da.
Zure herria ez bazaizu gusta-
tzen aldatzea ondo dagoela irudi-
tzen zait.
Gero eta jende gehiago mugit-
zen ari da beste leku batzuetara.
Paperik gabe iristen direnak kon-
trolatuta izatea zaila da, hori da



David
Langabetua

Gai zaila da. Pertsonak libre-
ki zirkulatu behar lukete. Lampe-
dusan gertatutakoa neurriak ja-
rri behar direla adierazten du. Is-
tripua gertatu da eta zer dagoen
ikusten da orain, baina betidanik
egon da hori. Hori ekiditzeko neu-
rriak hartuz herrialde guztiek la-
gundu beharko lukete, nahiz eta
mugan dauden herriek laguntza
gehiago eskaini ditzaketen.

?

_GALDERA

Pertsonen migrazioa librearen alde zaude? Zergatik?

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.com helbidera idatzita

 BIDEOA WEB-GUNEAN



Amaia
Administraria

Libre izan beharko luke, libreak
garenez libreki mugitu beharko gi-
natekeelako.
Era honetako istripuak saihe-
teko nik uste dut horrelako mugi-
mentuak babestuta egin beharko
liratezkeela.
Denon artean gauzak hobeto
egiten dira, beraz, etorri eta joa-
ten direnen herrialdeen arteko lan
ekintza egin beharko litzateke.



Alberto
Bidesariko langilea

Ni pertsonen migrazio librea-
ren alde nago, baina hemen-
go jende askok kanpokoan behar
berdinak ditu.
Horregatik, nire ustez, berdin-
tasunez jokatu behar litzateke
kasu guztietan.
Denek eskubide berdina izan
beharko lukete.



Juanjo
Obrako langilea

Nire ustez lehen ondo zegoen,
baina orain frenatu egin behar da.
Guri ere elkar babestea falta zai-
gu. Ni emigrantea izan nintzen eta
hona etortzeko errekonozimendu
osoa egin behar izan nuen, orain
jendea ezer egin gabe dator.
Soluzio gisa beste herrialdeak
laguntzeko zergak jartzea pro-
posatuko nuke, migrazioa gera-
tzeko.

TWITTERen

#albisteizanda

@orozkokoga: Gaztaina Eguna Orozkon!!! **@naugazte @aiaraldea**

@aiaraldea: Amurrión Alda-
mako jaiak ospatzen ari dira

@naugazte: @aiaraldea @topatuinfo eta **@Gaztel-
raultza** ko lagunekin GAZTE
ÑAUTADAN hamaiketako-ter-
tulia burutuko dugu. komuni-
kazioa eta elkarlana!

@aiaraldekosound:
AZAROAK 1 ORBEKO ETXEAN
“Aurkezpen Festa” ANIMA
ZAITEZTE! Renfe: St. Cruz Llo-
dio (Gardea) #Dohainik

@taupakaelkartea: Aiaral-
dea Irratian, Txipi Stx gidari-
tzapean, “Taupadaz taupada”
irratsaioaren programa be-
rrial!

@Ganbegi: 2 - 0 galdu dugu
@SardineroHC -ren aurka.

@Aitanalzagirre: Zollon
gaur auzolan egune **@aiaral-
dea**

@anartz1990: 50 pertso-
na inguru vallekaseko lagu-
nen kontakizunak entzuten ur-
duñako gaztetxean **@euskal-
vallekas @aiaraldea @Gaz-
teAsanUrduna**

TIRADA: 10.000 Ale. Lege gordailua: BI-1230-2013
ERREDAKZIO LANTALDEA: Aiaraldea Komunikazio Leihoko Erredakzio Saila

E-POSTA HELBIDEAK: egunkaria@aiaraldea.com / iragarkilaburrak@aiaraldea.com
publizitatea@aiaraldea.com / agenda@aiaraldea.com / agurrak@aiaraldea.com

OHARRA: Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarriketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

LAGUNTZAILEA: ARABAKO FORU ALDUNDIA
Argitaratzailea: Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Nerbio Kalea 1, 3. esk. Audio. Araba. 01400 Tel: 94 656 85 54
Aiara Etorbidea 9, Amurrio, Araba, 01470. Tel: 945 06 66 84
Sakeleko Telefonoa (WhatsApp): 688 848 152



_gutunak

Independentzia bultzatu, lortu!

Iker Ibarrondo. Arabako EGI Euzko Gaztediko idazkaria

Euzko Gaztedi EGik, EAJ-PNVren ekimenez eta EH Bilduren ba-
besarekin Urriak 25ko jaieguna kentzeko akordioa, datorren
urtean abian jartzeko egiten du dei. Alderdi Popularrak eta Al-
derdi Sozialistak orain dela 3 urte adostu zuten, urriaren 25ean Euska-
diren eguneko ospakizuna ezartzea, inongo adostasunik gabe, aprobe-
txatuz estatu estrategia zela medio, eusko legebiltzarrak ez zuela in-
dar guztien presentzia bermatzen, jaiegun hau inposatu ziguten. Alder-
di sozialista eta alderdi popularra dira errudunak. Kuriosoa da beraiek
izatea Gernikako estatutuaren defendatzaile sutsuenak. Euzko Gaz-
tedi oroimenean du 2008ko Urriko 25ean ere, euskaldunok Ibarretxe
Lehendakariak, proposaturiko estatu politiko berriaren onarpena ala
ez bozkatzera deituak ginela. Euskaldunak erabakitzeko askatasunez
eta demokratikoki gure etorkizuna, Estatu espainolak legea bere es-
kuetara edukiz, debekatu zuena. Gure eguna Aberri Eguna baita. Horre-
gatik espero dugu EAJ-PNVk eusko legebiltzarrean proposatu zuen eki-
menak ahalik eta lasterren zentzugabekeri honekin bukatzea.

Migrazio eskubidearen alde

Isabel Boveda. Laudion Bizi Gara elkarteko kidea.

Aurreko astean Lampedusan izandako tragediaren aurrean ezin
dugu mina baino adierazi. Proportzio erraldoietako sarraskia
izan da, baina ez kasualitatea. Azken urteetan milaka pertsona
izan dira, eta dira, miseriatik ihesi haien bizitzak arriskuan jartzen dituz-
tenak. Emakume, gizon eta haur ugariri ukatzen zaizkie bizirauteko bal-
dintza minimoak. Institutuzio eta estatu europarrek migrazioa Europa-
rentzat mehatxua dela diote. Mugak ixten dituzte, eta biktimei lagun-
tza ukatu. Etorkinak kriminalizatzeko legeak sortzen dituzte, itsasoeta-
ko bijilantzia areagotu... Estatu eta politikariek ez dute inolako arazorik
immigratzaileak ukatzeko. Ez gaituzte engainatuko. Oso argi dugu nor-
tzuk diren errudunak eta egoera honen erantzuleak. Horrelako egoera-
rik Lampedusan ez inon ez dadin berriz errepikatu, zigorrak deuseztatu
eta libreki immigratzeko eskubidea aldarrikatzen dugu. Arazo hau guz-
tiona da. Ez da zilegia geroz eta aberastasun gehiago pilotzea geroz eta
esku gutxiagoan. Gure erronka da sistema aldatzea. Ez Lampedusan ez
inon. Migrazio eskubidea orain!



herri herri

Urduña



La Paul inguruetan egin nahi dute bainutoki ekologikoa Argazkia: Urduñako udala

La Paul-eko laku ekologikoa Conama sarietarako hautagai

ERREDAKZIOA | Andima Landaluze Okeranza

Aurtengo Conama lehiaketarako hautatutako proiektuen artean, Urduñako udala La Paul eremuan bultzatzen ari den bainurako aintzira ekologikoa ageri da. Azken faserako Espainiar estatuko beste 40 bat proiekturen artean aukeratu dute.

Udalerrri txiki eta ertainek sustaturiko proiektu jasagarriak saritzea du helburu Conama fundazioak bultzaturiko ekimenak.

Sariketa Espainia mailakoa da eta Andaluziako Granada probintzian antolatzen dute.

Hala, bi kategoriatan neurtuko dira udalerriek bultzatutako jasagarritasun proiektuak, udalerritxi-ki eta ertainei dagozkielarik.

Alde batetik 5.000 biztanletik beherakoak lehiatuko dira. 30.000

biztanlera artekoek beste kategoria bat osatuko dute.

Urduñakoa ez da ordea eskualdeko bakarra, "Amurrio Sare" proiektua ere ageri baita hautagaien artean, udalerriko enpresa-ehuna ekoefizientziari lotutako ekintzen bidez dinamizatzea helburu duenari.

Ohore saria

Ohore saria da Conama, izan ere garaileek ez dute dirurik jasotzen. Antolatzaileek jasagarritasuna bultzatzen duten egitasmoak aintzatestea dute helburu. Garaileak bozketa bidez hautatuko dira, bederatzi bozkatik zortzi epaimahaiari dagozkielarik. Gainontzekoa online bidezko bozketaren bidez egiten da.

Bainutoki ekologikoa

La Paul ingururako laku ekologikoa eta aisialdi gunea gauzatzeko egitasmoak urtebete egin du. Udalak iazko urriaren 24an eginitako Hirigintza Arloko Batzar Orokorrean aurkeztu zuen. Ordutik hona proiektuak lehen urratsak eman ditu. Zehatzago definitu eta bideragarritasuna aztertuta, proiektuaren erredakzioa gauzatu berri du udalak.

Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa ere jasoa du, aurtengo urte erakundeak ingurumen hobekuntzarako emandako diru laguntzen artean egon baita.

Guztira, 38.000 euro jaso dituzte. Diru horrek proiektuaren erredakzioaren %80 suposatzen du.

Duela bost urte udal igerilekuak kaltetu zirela eta, bainurako alternatiba merke eta ekologikoa gisa aurkeztu zuen udalak bainurako laku ekologikoa bat egitea.

600 metro karratu inguruko azalera izango lukeen aintzirak udalerrian bainurako dagoen beharra asetzeaz gain, eraikitze eta mantentze kostuei erreparatuta bideragarria izango litzateke.

Horretaz gain inguruko arbola-dia berreskuratu eta eremu osoa aisialdirako hornituko litzateke.

Lanek erendebora gutxi beharko lukete eta proposatutako kokapenak bainu-eremua erdigunera nabarmen hurbilduko luke.

Amurrio Sare

Amurrioren, aldiz, "Amurrio Sare" proiektua aukeratu dute Conama sarietarako hautagai. Egitasmoak ekoefizientzia ekintzen bidez enpresen sarea jostea du ardatz.

Azaldu dutenez, Amurrio Bidean -ek sortu eta prestatu zuen ideia 2011n. Horretarako, bi laguntza jaso zituzten: batetik, Amurrioko udalarena eta bestetik, Eusko Jaurlaritzaren elkartepublikoaren lloberena.

Aukeratutako proiektu guztien informazio zehatza eskuratzeko edo bozkatzeko www.premiosconama.org webgunera jo daiteke.

Herriko bi tokietan ibilgailuentzako abiadura murriztu dute

ERREDAKZIOA | Irati Mendiguren Cosgaya

Okondoko bi gunetan trafikoa-
ren abiadura araudia aldatu dute.

San Roman auzoko errepidean abiadura murrizteko seinaleak jarri dituzte.

Orain arte ez zegoen araututa, baina hemendik aurrera 40 kilometro orduko abiaduran igaro beharko dira ibilgailuak. Hala azaldu du Sergio Tato Okondoko alkateak: "Trabesia bat da eta normalean kotxeak 60 kilometro orduko abiaduran joaten dira. Lehen ez zegoen mugarik. Horregatik, arreta deitzeko semaforoa eta argidun seinaleak ipini ditugu".

Udaletxeko igarobidea

Bestalde, udaletxearen aldamenetik igarotzen den errepidea zeharkatzeko abiadura handiagoa izatea onartu dute oraintsu.

Izan ere, lehengo anbulategia udaletxearen kokatuta zegoenez, 30 kilometro orduko abiadan pasa behar ziren kotxeak. Hemendik aurrera, aldiz, 50 kilometro orduko abiaduran zeharkatu ahal izango da ibilbideko zati hori.

Sergio Tato alkatearen hitzetan, arratsaldeetan ez zegoen osasun arreta zerbitzurik eta ondorioz, ez zuen zentzurik muga hori mantentzeak. "Salaketa asko jarri dira hori, jende askori isunak jarri eta gida-baimeneko puntuak kendu dizkiotela".

Info +: Audioa:

Sergio Tato Okondoko alkateari Aiaraldea Irratian egindako elkarrizketa



EAJ: "Lanekin jarraitu balu ez legoke zorrik kiroldegiarekin"

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Aiarako EAJ kiroldegiaren inguruan egindako kudeaketa eta proposamena defendatu ditu. Jeltzaileen ustez, lanen lehen fasea bukatu behar zen, baina 2011n egindako ez ohiko Udal Osoko Bilkuran kontrakoa erabaki zen.

EAJk adierazi du udalak lanekin aurrera egin izan balu Foru Aldundiak emandako diru guztiak gastaturik egongo litzakeela. Horrek zera suposatuko luke: erakunde foralari berehala 744.000 euro itzultzeko beharrik ez legokeela. Bestalde, erositako materiala ez litzateke galduko.

Nahiz eta lehen fasea burutu, oraindik 1.200.000 euro inguru lortzeko premia izango luke Aiarako Udalak, baina jeltzaileen ustez denborarekin finantzazioa biltzeko aukera egongo litzateke. Horri Udalak epaitegiaren lortu ditzakeen kalte-ordainak gehitu beharko litzazkioke; lehen fasearen garestitzea eta etena dela eta, Udalak proiektuaren talde erredaktorea eta obraren zuzendaria salatu baizuen.

Lanak hasi bezain laster arrakalak eta arazoak agertu ziren eta horrek eragin zuen obraren aurrekontuak biderkatzea. Hasiera batean 1.821.068 euro balio behar zuen proiektua ia 3.000.000 euro behar izatera pasa zen.

Garbiñe Alaña buru duen alderdiak azalpen batzuk eskaini ditu kiroldegiaren proiektuaren inguruan. EAJk argitu du kiroldegi gisa ezagutu den proiektua ez zela soilik hori. Frontoi estalia ez ezik -pilota-ri profesionalen partidak antolatzeko- erabilera anitzeko pista ere izan behar zen azpigitura.

LAUDIO 1983: Ur eta elkartasun oldea DOKUMENTALA

DVD-a SALGAI ZUHAITZA LIBURUDENDAN (Nerbioi 2, Audio)

PREZIOA: 3 euro

PROMOZIO BERRIA

KANPORA EMATEN DUTEN 6 ETXEBIZITZA K/ KARMEN 7 (TOLO TARBENAREN ONDOAN)

3 LOGELA GARAJEA ETA TRASTELEKUA

240.000 €

INFORMAZIOA ETA SALMENTA: 94 672 85 50

etxaurre inmobiliaria

_herriz herri

Amurrio

Laudio



Arau urratzeengatik 150 eta 2.400 euro bitarteko isunak jar ditzakete Argazkia: Aiaraldea.com

Txakurrak edukitzeko araudia berriro aldatu dute

ERREDAKZIOA Aitor Aspuru Saez

Amurriion egindako azken Udal Osoko Bilkuran txakurrak edukitzeko ordenantzan aldaketa berriak egitea adostu dute.

Josune Irabien alkateak argitu zuen Udaltzaingoak berak irizpide argien beharra azaldu duela eta 2013an irekitako 18 espedienteek,

nahiz eta momentuz etenda dau- den, aurrera egingo dutela.

Bi aldaketa

Egindako egokitzapenek biardatz dituzte. Alde batetik orain arte larriak ziren arau-hauste batzuk arin- tzat joko dira.

Horien artean egongo dira herri- tarren lasaitasun, segurtasun eta higiean eragin larriak ez dituzten arau-hausteak.

Aurrerantzean txakurrak bi me- tro baino gutxiagoko soka egokiare- kin ez eramateak eta jabearen kon- trolik gabe txakurrak leku publikoe-

tan aske egoteak kategoria berdina izango du ordenantzaren arabera.

Isunak

Portaera hauen ondorioz jaso dai- tezkeen isunak 150,25 eta 300,51 euroren artean egongo dira.

Aldaketen beste oinarria larriak diren arau-urratzeak finkatzea izan da.

Zentzu horretan, modu nabar- menean amurriotarren higiea, se- gurtasuna eta lasaitasuna kolokan jartzen dituzten jokoarak sailkatu dituzte esparru horretan.

Gauza bera gertatuko da kalteak sortu ditzaketen animaliak ez badi- ra behar den moduan zaintzen.

Aldi berean, bi urteren epean arau-hauste arin bat baino gehia- go egiteak isun larria jasotzea su- posatuko du. Arau-urratze larriek duten zigor ekonomikoa 300,52 eta 2.404,05 euroren artean dago.

Bukatzeko, beste zehaztasun tekniko bat ere txertatu dute orde- nantzan isunei dagokienez. Horren arabera, isunak KPlaren igoeraren arabera eguneratuko dira.

Azkenaldian txakurrak edukitze- ko ordenantzak aldaketa ugari izan ditu, 2012an beste Udal Osoko Bil- kurak gaia landu baitzuen. Txaku- rrak kaletik aske edo lotuta erama- tearen arauak herritarren iritzi ez- berdinak piztu ditu.

Info +: Bideoa:

Kale inkesta: Tx- akurrak lotuta ala aske?



Gazte Asanbladak Landazuriko epaiaren aurka helegitea jarri du

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Landazuri Etxearen okupazioa- ren ondorioz Amurrioko Gazte Asanbladako 9 gaztek isuna jaso dute. Epaiketa irailaren bukaeran izan zen eta dagoeneko epaileak bere erabakia helarazi die gazteei; 450 euroko zigorra ezarri.

Nahiz eta eskaera fiskala askoz handiagoa izan, Amurrioko Gazte Asanbladak iragarri du ez dagoela ados eta helegitea jarriko duela. Haien ustez, urte askotan zehar hutsik egon den eraikina gaztetxe izateko okupatzea ez da delitua. Horregatik absolutuzioa bakarrik onartuko dutela adierazi dute.

Gazte Asanbladak udalarekin ha- rremanak eten zituen epaiketaren harira. Baina epaia jaso bezain las- ter erakundearekin bilerak egin di- tuzte Gaztetxearen auziari konpon- bidea topatzeko.

_iruditan



Aiaraldea Komunikazio Leihoak antolatutako Udako postal lehiaketako sari banaketa egin zen urriaren 18an. Aurtengo edizioan bost kategorietara 180 postal aurkeztu dira. Irudian, Aiaraldeko, Euskal Herriko, atzerriko, jaietako eta mezu umoretsuen sailetan saritutako egileak, koadroa eskuan.

Postal guztien argazki bilduma: Aiaraldea.com



Gaztelekuari buruz duten iritzia argitu dute EAJk eta PSE-EEK

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado

Irailaren 30eko udal osoko bil- kuran EAJk mozio bateratua aur- keztu zuen PSE-EEekin, zeinetan Ugarteko gaztelekuarekiko "osa- garria" izango litzatekeen biga- rren gune bat irekitzea proposa- tzen zen. Mainer Basterra zinego- tzi jeltzaleak salatu zuen Bilduk "murriztu" egin zuela gazteleku- ko eskaintzaren kalitatea. Gaztele- kuko langileek, euren aldetik, Bas- terraren adierazpenengatik "min- duak" sentitu zirela adierazi zuten geroago. Basterra zinegotzi jeltza- leak jakinarazi du kalitatea jaitsi zela esan zuenean ez zela ari lan- gileek egiten zuten lanari buruz, "eskaintza" eta, batez ere, "kon- tratazio prezioen" inguruan bai- zik. Zinegotziak udalbatzan azal- du zuen udalak diru gutxiago jarri duela gaztelekua kudeatzen duen enpresaren eskuetan, eta horrek eskaintzaren "kalitatea gutxitu" duela. Diru murrizketak gaztele- kuaren ordutegian eragin du, aste- lehenetan itxita egotera pasa bai- ta. Gazteria arloko politika "global eta anbizio handiko" baten beharra dagoela azpimarratu zuen Baste- rrak plenoan, "12 urtetatik 35 ur- tetara arteko adin-tarteabarne bil- duko duena". Izan ere, gaztelekuak 12-17 urte artekoentzako ekintzak baino ez ditu antolatzen zinegotzi jeltzalearen arabera. Amets Mea- za alkateordeak, bere aldetik, gaz- teleku "anitzago" baten beharra dagoela aitortu zuen, baina gazte plan bat abian dagoela gogorara- zi eta planaren faseak errespetat- zea eskatu zuen.

Txaro Sarasua eledun sozialis- tak ere, udalbatzan esandako hi- tzak egunkari honetan "tesutingu- rutik kanpo" jaso izana salatu du, bai eta gaztelekuko langileek bere hitzek "xenofobiasustatzen" dute- la esan izana ere. Sarasuak argi- tu nahi izan du Ugarteko auzoan integrazio arazoak egon direla ai- patzean ez zuela gaztelekua go- goan, eta arazo horiek ez zutela harremanik arraza edo eta jato- rriarekin. Eraberean, PSE-EEK per- sona guztien integrazio eta esku- bideen aldeko jarrera arbia duela nabarmendu nahi izan du.

Info +: Udalbatzaren bideo osoa

<http://www.aiaraldea.com/albis- teak/gazteleku-berri-bat-ireki- tzea-onartu-da-udal-osoko-bilku- ran>



_herriz herri

Artziniega



Artziniegako museoan egingo dira ekitaldiak Argazkia: Artziniegako museoa

Artisauen lanak ezagutzeko aukera luzatuko du museoak

ERREDAKZIOA | Irati Mendiguren Cosgaya

Artziniegako museoan antzinako bizitza nolakoa zen ikasteko aukera eskainiko dute azaroaren 10ean. Ez edonola, gainera. Izan ere, museo etnografikoaren baitan artisauek ezberdinak kokatuko dira haien lana azaldu eta erakusteko.

Ekitaldia urtero egiten dute eta harrera handia izaten du. Artea etnografia elkarteko en hitzetan, ehun lagun inguru hurbiltzen dira.

Bisita gidatuak 11:00etatik 14:00etara egingo dituzte.

Artea elkarte etnografikoaren bidez, urte osoan zehar mendeetan atzera egin eta artziniegarren bizitza nolakoa zen isladatzen du eraikinak.

Azaldu dutenez, helburua be-launaldi ezberdinei antzinako bizitza eta baliabideak nolakoak ziren transmititzea da.

Antzinako etxeak eta bizimodua

Bisita gidatuetan hamazazpi gelatan ezberdinetan ofizio eta prozesu ezberdinak azaltzen dituzte. Lehenengo gelan, esaterako, ehungintza nola egiten zen kontatzen dute: "Artileak, oihalak... daude. Txakolina, sagardoa... nola egiten zen ere erakusten dugu". Baita okinarenekin, arotzaren edo bestelako lanbideen jarduerak ⁽¹⁾ ere.

Medikuntza ogibideari ⁽²⁾ dago-kion eremuan, sendabelarrek izan duten garrantzia adierazten dute. Nekazaritzaren zatian, berriz, garia, artoa... nola jorratzen den.

Beste bitxikerietako bat duela urte batzuk sukaldaria nolakoa zen ikusteko duten gela da. Izan ere, garaiko tresneria gordeta dute bertan.

Bertaraterik ez dutenek web-gunearen bitartez bisita bertutalki egin dezakete.

Artziniegan Artea etnografiak lan handia egin izan du antzinako lanbideak berreskuratzeko. Horren adibide da, apirilaren inguruan antolatzen duten "Herri oratzea". Bertan, ogia nola egiten zen erakusteaz gain sukaldari lanean jartzen dituzte ume zein helduak.

Azaroaren 23an txarriboda egingo dute. Besteak beste, txarriboda nola egiten zen azaldu, eta dastaketa egingo dute.

Hiztegia: Jarduera ⁽¹⁾, ekintza / Ogi-bidea ⁽²⁾, lanbidea.

Info ➤ Bideoa: Herri oratzea



Arrankudiaga - Zollo

Azaroaren 8tik 11ra ospatuko dira Zollon San Martin jaia

ERREDAKZIOA | Ixone Mendibil

Badatoz Zolloko festak. Azaroaren 8tik 11ra ospatuko dira Zolloko San Martinak. Zolloko jai batzordeak programan aintza prestatu du, hiru egunetan zehar ekintza mordoak egongo dira.

Barikuan jaiei hasiera emango zaie txupinazoarekin, eta gauean berbera egongo da.

Aurtengo jaietarako gauza berriak prestatu dituzte, esate baterako, zapatuan umeen eta gazteen eguna izango da.

Lehenengo aldiz ospatuko den gazte egun honetan bazkaria egongo da eta ostean, Uluka taldeak girotuko du festa. Arratsalde partean baserri olimpiadetan parte hartzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Gauean, parrandazaleek musikaz eta giro apartaz gozatu ahal izango dute. Besteak beste, A Gantxo y Kutxillo, Habemus Papam, lheskide eta Tximeleta taldeekin.

Astelehenean, San Martin egunean mundu guztiak gonbidatu dute txerriak dastatzera arratsalde partean.

Hara joaten direnek bertako odolosteak jan ahal izango dituzte. Herrikoiek egiten dituzte, ez edonola gainera; antzinako eran eta auzolanean baizik.

Eskolako sartu irten orduetan trafikoa itxiko dute

ERREDAKZIOA | Ixone Mendibil

Elexaldeko gunea itxi egingo da umeak ikastetxean uzteko eta jasotzeko orduetan azaroaren 4tik aurrera. Eskola egunetan, goizeko 9:00etatik 9:45era eta 16:00etatik 17:00etara, ezin izango da herrigunean ibilgailu partikularrekin sartu. "Eskola Bidea" deituriko proiektu honek garraio-bide iraunkorrak sustatu nahi ditu Lehen Hezkuntzako ikasleen artean; isuri kutsagarriak gabeko garraio-bideak, etxetik eta eskolara oinezko joan-etorriak, modu autonomoan eta ibilbide seguru batean sustatzeko.

Mugikortasun ohiturak jasotzeko inkesta egin zuten lehenbizi ikasleek. Ondoren, errealitatearen emaitza txostena egin dute eta azkenik eskolako guraso eta irakasleekin bilera.

Bilera horietan, garrantzi berezia eman zaio eskolara sarrertan segurtasun neurriak ezartzeko beharriari; haur garraioa egiten duten bi autobusek maniobratzeko arazoak dituztelako umeak eskolan utzi eta jasotzerakoan eta sartzen diren autoek umeak egoera arriskutsuetan jartzen dituztelako. Hori horrela, egoera hobetzeko esperientzia pilotua abiatzea proposatu da.

Orozk

Kiroldegia erabiltzeko tasak berritu eta ordenantza fiskalak onartu dituzte

ERREDAKZIOA | Aitor Martinez Ibarrola

Orozkoko Udalak datorren urterako ordenantzak onartu ditu. Hauen bidez 1,9ko igoera aplikatuko da zerga guztietan. Besteak beste, ura, zaborra, lizentziak, kotxeak, sa-neamendua... eta kiroldegia ireragingo die igoera horrek.

RGI diru-laguntza jasotzen duten zerbitzuak dohainik izango dituzte, betiere 25m³ baino gutxiagoko gastatzen badute.

Kiroldegia tasek ere aldatuta pairatuko dute. Elbarriek prezio osoaren %33 ordaindu beharko dute instalazioen erabilerarako.

Taldean joan nahi duten erabiltzaileek ere aukera berriak izango dituzte, prezio berezietan baliatuz. Horretarako, 15 pertsona baino gehiago izan beharko dira eta talde ofizialki errolatuta egon.

Azkeneko baldintza hori kirol talde, elkarte, eskola eta ezagarrak berdintsuak dituzten beste hainbatek beteko lukete. Taldeetako partaideek banaka ordaintzen diren 4 euroen erdia ordaindu beharko dute datorren urtetik aurrera. Zehazki, bi eurotan izango dute sartzeko aukera.

Aiaraldea

_Iruditan



Aiaraldeko gazte mugimenduak Ñau proiektu komunikatiboa sortu du. Urriaren 19an aurkeztu zuten Orozkoko plazan.

Egitasmoa aurkezteko "Gazte Ñautada" jaia antolatu dute larunbat honetan Urduñan. Argazkia: Aiaraldea.com

_sozioekonomia



Koldo
Urkixo
LAB sindikatua

_Argia

Norena da enplegua?

Aiaraldeak eskualdean 3.532 langabetu daudela argitaratu zuen aurreko alean. Madriletik kapitalaren eta agintarien mesedetarako neurriek esker enpleguaren suntsiketa egunero ikusten dugu. Eskubide sozialak, gutxi eta urriak izan badira ere, suntsituak izaten ari dira.

Enpleguaren suntsiketari aurre egiteko hiru bide daude; suntsiketa gelditzea, enpleguaren sorrera eta banaketa.

Suntsiketa behin eta berriz borrokatu behar dugu. Pertsona orok hartu beharko lituzke bere gain lan gatazkak, EREak, kaleratzeak... Suntsiketa hauek ere guztioi eragiten diutelako.

Enpleguaren eraketan instituzioek daukate zeresan handiena. Kalitatezko enplegua bermatzeko, zerbitzu publikoak pribatizatzeke joerarekin amaitu beharra dago. Eredu pribatua, inbertsioetan dago koska, batez ere I+G+B-en, dirua egon badagokelako.

Gaur egun dagoen enplegua banatu daiteke, lanaldiak murriztuz, aparteko orduak behingoz eta benetan ezabatuz, jubilazio adina aurreratuz... beti ere lan eta soldata prekarioak ekidituz, herrialdeko zein enpresako hitzarmenak errespetatuz...

Hau guztia aurrera eramateko, Madril planto egiteko, gure bidea egiteko, Euskal Herriko instituzio, eragile politiko, sindikatu, eragile sozial, patronal, enpresari eta langileen konpromisoa eta benetako nahia behar da. Pausoak guztiok eman behar ditugu.

“Ogerleko” izeneko moneta jarriko dute martxan Artziniegan, Amurriion eta Laudion



Urte amaierarako egongo da kalean “oggerleko” moneta Argazkia: Gartzen Garaio

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Abendutik aurrera Ogerleko txanponarekin egin ahal izango dira erosketak Artziniegako, Laudio eta Amurrioko merkatarien dendetan.

Jon Aspuru Arabako Komertzioen Federazioko lehendakaria da: “Esperientzia piloto bat da. Lehenbizi lantegietan jarriko dugu martxan, sinergia proiektu bat da”. Bigarren fasea eskualdean zuzenduko dute. Asmoa 2014an Aiar osoan martxan jartzea da. Helburua tokiko merkataritza sustatzea da. “Zirkuitu itxi bat egitea eta hortik ez ateratzea dirua, azken finean hori da”.

Eduarne Parro Arabako Merkatarien Elkarteko gerentearen arabera, hilabeteak daramatzate egitasmoa prestatzen.

Finean, bertako txanpon bat erabiltzea nahi dute. Era honetan, bezeroek Artziniegako, Amurrioko

eta Laudioko dendetan deskontuak izango dituzte.

“Ogerleko” izena jarri diote, eta salmentak estimulatzea zein bezeroek ihes ez egitea izango du helburu.

Ikur berria eskualderako soilik prestatua dago. “Txanpon hau interesa duten Aiar Haraneko industria eta enpresek bakarrik izango dute”. Horretarako, ezinbestekoa da proiektuan parte hartzea. Alegia, hiru herri horietako merkatarien elkarteetan erroldatuta egotea.

Proiektuaren helburuetako bat industriaguneetan lan egiten etan poan bizi diren pertsonen erosketak bertan egitea da. Bigarren xedea ⁽¹⁾ bertako kontsumoa sustatzeko zirkuitu itxi bat bultzatzea da.

“Ogerlekoak” euro bateko balioa izango du eta lau motatako billeteetan eskuratu ahal izango da. Ba-

tetik, 20 eta 50 zentimoko euskarrietan. Eta, bestetik, 1,5 euro eta 10 euroko balioa izango duten billeteetan. Ogerlekoak onartzen dituzten dendak itsaski ⁽²⁾ eta txartel berezi batekin ezberdindu dira.

Txanpona merkaturatzeko estrategia ere prest dute. Parroren hitzetan, denda horietan erosketak egiten duenak gastatutako diruaren %10 eskuratuko du ogerlekoetan. Sos ⁽³⁾ horiek baldintza berak dituzten Laudio, Amurrio edo Artziniegako beste dendetan xahutu ⁽⁴⁾ ahal izango dituzte.

Eduarne Parrok proiektuak Apill, Apymca eta AEME merkatariekarteetan harrera ona izan duela dio: “Azken urteetan kontsumoak behera egin du, eta ideia hau sustatzeko lagungarria izan liteke”.

Enprestan aste honetan aurkeztuko dute txanpona. Herrietan, aldiz, abenduaren erdialderako martxan jartzea espero dute.

“Denak irabazle”

Eduarne Parroren aburuz ⁽⁵⁾, monetarekin denek irabaziko dute. Enpresek, herriarekiko konpromisoa ikusaraziko dute.

Langileek komertzioetan abantailak izango dituzte eta produktu eta zerbitzu ezberdinen artean aukeratzeko askatasuna izango dute.

Dendariak, aldiz, eskualdean lan egin eta kanpoan bizi diren pertsonen gastua eskuratzeko aukera izango dute.

Eta, eskualde mailan, bertako kontsumoa indartuko da. Baita herriko ekonomia sustatu ere.

Herriarrek dendahorietan eros-teagatik abantailak izango dituzte:

“Egindako gastuaren arabera %2, %4 eta %10 arteko deskontuak izango ditu, nahi duen enpresa edo zerbitzuaren gastatzeko”.

Adibide gisa, industriaguneko langile batek 100 euroko erosketak egiten badu, 10 ogerleko jasoko ditu; %10. 50 euroko erosketak egiten denean, aldiz 2,5 ogerleko; %5.

Txanpona merkaturatzeko udal txeteetan ere aliantzak bilatu nahi dituzte. Horren adibide da, udal txeteko gabonetako saskietan “oggerlekoak” txertatzeko ⁽⁶⁾ egingo duten proposamena.

Urratsak epeka

Iragan ostiralean, urriaren 25ean, egitasmoan parte hartuko duten dendariekin konpromisoak sinatu zituzten. “Parte hartzeko konpromisoa 2014ko abenduaren 31 artekoa izango da”, zehaztu du.

Atzo, enpresa eta udal txeteei elkartzaren, egitasmoa azaltzeko: “Azaroaren lehen hamabostaldian parte hartzeko konpromisoa helduko diegu, industria eta udal batzuetako inplikazioa bilatzeko eta parte hartu nahi duten langile eta merkatariek lotzeko”.

Azaroaren bigarren hamabostaldian, aldiz, identifikatzeko tarjeta eta eskuorriak egingo dituzte. Baita portzentaika dagozkien deskontuen euskarriak ere.

Gauzak ondo bidean abenduaren lehen hamabostaldian kaleratuko dute “oggerlekoak”.

Hitzegia: Xedea ⁽¹⁾, helburua / tsaski ⁽²⁾, pegatina / Sos ⁽³⁾, diru / xahutu ⁽⁴⁾, gastatu / aburuz ⁽⁵⁾, us-tez / txertatzeko ⁽⁶⁾, sartzeko.

Kimberly-Clark enpresan lan-erregulazio espedienteak abian

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Artziniegan kokatuta dagoen Kimberly-Clark enpresak enplegu-erregulazio espedienteak abian ditu.

Zuzendaritzak adierazi du eskaerak behera egin dutela eta horren ondorioz hartu duela erabakia. Hala ere, urriaren 22an Kimberly-Clark-ek zabaldu zuen bere akzioek goranzko joera dutela eta horien irabazien estimazioa igo direla.

Langileak desados

Bestalde, langileek uste dute lan nahikoa dagoela eta espedienteak ez dela beharrezkoa. Aldi berean 19 langilek modu normalean lan

egiten dutela lantegiaren jarduerak modu ekonomikoagoan mantentzeko salatu dute. Langileek azaldu dutenez, jabe berriek hirutan zaitu dutela enpresa: Aranguren dagoena alde batetik eta Artziniegan dauden biak -xaboigintza eta papergintza- bestetik.

Langileen aburuz, zuzendaritzak hartu dituen neurrien bitartez beharginen erantzun gaitasuna urratu nahi du. Gauzak horrela, enpresaren azkenengo helburua murrizketa neurriak ezartzea izango litzateke. Beharginek uste dute zuzendaritzaren asmoa hori ez ezik langile berriei baldintza okerragoak ere eskaintzea badela.



Tubacex enpresak Kantabriako fabrika irekiko du

Aurreko alean jaso zen bezala, Tubacex enpresak lantegi berria irekiko du Kantabriako laster.

Marina de Cudeyon egongo da enpresa eta zerbitzu aurreratuak eskainiko ditu: shot peening tratamenduak hain zuzen ere.

Lan mota horiek ez dira egiten Artziniegan, Laudion eta Amurriion dauden lantegietan.

Kantabriako garapenerako sozietate publikoak %19 partaidetza izango du egingo den filialean eta Tubacex Service deituko dena. Hurrengo hilabetetan hasiko da makinen instalazioa eta 2014ko bigarren sei hilabeteetan espero dute bere jarduerak ekonomikoa hastea.

_jendarte

Heriotza bizitzeko moduak

Heriotza bizitzeko joerak aldatzen ari dira azken urteetan. Elizkizun kristauetz gain hileta zibila egiteko aukera eskaintzen hasi dira hainbat herritan.



Domu Santu egunez jende asko joaten da hilerrietara hildakoen omenez loreak uztera Argazkia: Aiaraldea.com

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

"Heriotza pertsonengan bizitza egon dela adierazten duen sintoma da". Hala dio Mario Benedeti idazlearen esaldi famatu batek. Bakoitzak, ordea, era ezberdin batean bizi eta hiltzen du mina.

Pertsonak agurtzeko erabat baino gehiago daude. Urteetan zehar, erlijioari lotutako hiletak izan dira nagusi eskualdean. Denborarekin, baina, ohiturak ere aldatzen ari dira. Horren adibide dira hileta zibilak. Laudion, esaterako, udalak areto bat du herritarren eskura halako ospakizunak egiteko.

Eusebio Larraz tanatorioko arduradunaren aburuz⁽¹⁾, hilotzen %50 lurperatu egiten dira, eta besteak erre. Laudion, Amurrión eta Arrigorriagan tanatorio bana kudeatzen du Larrazek. Hala, Urduña, Artziniega, Okondo, Aiara, Amurrio, Audio, Arakaldo, Orozko eta Arakaldoko herritarrei hileta zerbitzua eskaintzen die. Aiaraldean, urtero, 500-600 errauste⁽²⁾ edo ehorzketa⁽³⁾ egiten direla dio.

Agurtzeko erak

"2004tik errausketak asko igo dira, geroz eta jende gutxiago doa hilerrietara", adierazi du. Izan ere, geroz eta ohikoagoa bilakatzen ari da beilatokietan edo familiak aukeratutako lekuetan agurtzea zendua⁽⁴⁾: "Duela urte batzuk hileta egiten zen, eta gero lurperatu".

Batzuek, mendia edo itsasoa aukeratzen dute. Beste batzuek, eliza. Elizkizunetan ere, ordea, joerak aldatzen ari direla uste du Larra-

zek: "Hiletan %50 gorpua presentegon gabe egiten da. Niri pertsonalki hobe iruditzen zait; hilotza⁽⁵⁾ bertan egotea familia eta lagunentzat oso gogorra delako".

Gorpuak beti makilatzen dituzte; "inork ikusi nahi ez dituen ere bai. Ez da gorputza kaxan sartzea bakarrik". Izan ere, odol zirkulazioa etetea gorputzak kolore zuria hartzen du.

Bataz beste beilatokietan⁽⁶⁾ 2.500 euro uzten dute familia edo lagunek. Kaxa motaren arabera, ordea, aldatu egiten da prezioa. Gorputza erretzeak 450 euro bali du: "Baina kaxa baten barruan erretzen da, eta ondoren errauskak beste ontzibatean sartu. Bakoitzak bere erara egiten du. Batzuk kutxa argiak nahi dituzte, besteek ilunak... Propaganda, eskelak, loreak... ere mota askotakoak izan litezke. Horregatik, hileta bakoitza ezberdina izaten da".

Errausten baldin bada prozesua azkarrago bukatzen da; nahi dutena egin baitezakete horrekin: mendian, itsasoan, etxean... bota edo gorde. "Lurperatzea erabakitzen dutenek hilerrian jabegoa izan behar dute, eta ez da betirako izaten. Asko alokairuzkoak dira, beraz, 10-12 urte pasa ostean nitxoak hustu behar da. Prozesua ez da inoiz bukatzen".

Hala ere, Larrazentzat psikologikoki ez gaude inoiz heriotza bat jasateko prest: "Gaixotasunen kasuan prestatuago egon zaitezke, baina istripu edo haurrak direnean

Geroz eta gorpu gutxiago lurperatzen dira hilerrietan. Aiaraldean, urtero bataz beste 500-600 pertsona hiltzen dira. Hilotz horietatik %50 erraustu egiten dira.

-alegia, bat-bateko heriotzak- oso gogorra izaten da".

Aiaraldeko tradizioak

Heriotzarekin lotutako tradizioen inguruko eskualdeko erreferentziak XVIII. mendekoak dira.

Bat-bateko heriotzen aurrean hilarriak jartzen ziren. "Gorbeian, Orozkon, Laudion... daude horietako batzuk. Hortik pasatzen zen jendea irtoitza eskatuz arima hori behar den tokira eramango zutela pentsatzen zuten", dio Felix Mugarutza historia ikertzaileak.

Hildakoak kanpai hots berezien bidez iragartzen zituzten. "Pertsona bat hiltzen zenean familien base-rrietan bazkariak egiten ziren. Jende asko gosea kentzera joaten zen, behiak... hiltzen ziren eta", zehaztu du. Gabonetan hildakoei janaria uzten zitzaizela ere azaldu du.

Oletan, Erdi Aroan erritualak egiten ziren. Urduñan Sopeñako Errege Bideari lotuta, esaterako, hiru trikuharri daude; Lendoño, Oleta eta Añes inguruetan. "Hortik pasatzen ziren bidaiei hor hildako bat zegoela erakusteko eta bere alde jendeak otoitz egiteko jartzen ziren". Eskualde osoan, linboak ere ohikoak zirela dio Mugarutzak. Umeak jaiotzetik bataiatu arte ez zirenez kristauak ezin ziren ohiko erritualen baitan agurtu. Horregatik, linboetan lurperatzen zituzten: "Lur zati borobil batzuk ziren, bitelaren artean jartzen zituztenak. Horrela adierazten zen ume horiek etxea zutela".

Erljiotik harago, ordea, sinismenak ere markatu dute heriotza bizitzeko era. Adibidez, txakurrek arrazoirik gabe zaunka egitea heriotzaren seinale zela uste zen. Horren kontra sutara gatza botatzen zuten. "Oilarren kukurrukuagauerdian entzuteak ere norbait hil zela esan nahi zuen. Kasu horretan oilarra hurrengo egunean hiltzen zuten, heriotzari deika zebilkiola-koan". Euli beltzek ere heriotza edo zorte txarra zekartela sinisten zuten. Erleak, aldiz, ona. Horren adierazle da jendea hiltzean argizaiolak egiteko joera. Antzerakoa gertatu da txantxangorri eta txepetxeekin: "Txepetxe heriotza zekartela uste zuten. Horregatik baserritarrek ha- biak apurtzen zituzten".

Hiztegia: Aburuz⁽¹⁾, ustez / Errauste⁽²⁾, erreketak / Ehorzketa⁽³⁾, lurperatzea / Zendu⁽⁴⁾, hil / Beilatoki⁽⁵⁾, tanatorio / Hots⁽⁶⁾, hau da / Osagile⁽⁷⁾, mediku / Usadio⁽⁸⁾, ohitura.



Koldo

Gilsanz
HEZITZAILEA

_Hankamotz

Errealitate eraikitzaileak gara

Gaur egun, atzeraldi ekonomikoa dela eta, jende askok errealitate oso gordinak bizi ditu.

Egoera zail honetara modu osasuntsuan moldatzea atzeratu ezin dugun erronka da. Baina nola? Ez gaude kanpo-koaren menpe: bi pertsonak ez dute berdin erantzuten egoera berdinen aurrean. Beraz badugu zeresana geure bizipen emozionalean. Aldous Huxleyk zioen bezala, esperientzia ez da gertatzen zaiguna, gertatzen zaigunarekin egiten duguna baizik. Geure gizartean arreta bati bat kanpoan jartzen dugu: lana, familia, etxea, lagunak, egin, erosi... Baina gero, gure bizitza baloratzeko orduan, barne sentsoa da kontutan hartzen duguna. Nolabait, kanpoko zaintzen dugu barruan eragina izango duelakoan. Hobe genuke barrukoari ere arreta pixkat jarriko bagenio, hori aldatzea gure eskuetan baitago. Horretarako entrenamendua behar da; lurra prestatzea ezin bestekoa da haziak erein aurretik. Sentsibilitatea geroz eta garatuagoa dugu kanpoko fenomenoen aztertzeke. Barne sentsibilitatea ezin bestekoa da krisi egoeretan, bizi dudaren errealitatearekin kontaktatu eta barruan gertatzen denaz ohartzeko. Hau ez da kanpo errealitate-rik independente baina ezberdina izan daiteke.

Istoriaok dio aitona ilobari kontatu ziola guztiok barruan bi otso ditugula: bata beldurra, zalantza eta mesfidatasunaren otsoa; bestea konfiantza, lasaitasuna eta baikortasunarena. Ilbak, ikararuta, galde-tu zion: "Eta zeinek irabaziko du, aitona? Ba zeuk elikatzen duzunak, maitea".



_erreportajea

Perretxikoak, elikagai ala sendabide?

Mikologia gastronomiak egin du ezagun, baina elikatzeaz gain eragin handia izan dute perretxikoek medikuntzan, kulturen eta naturan.

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Perretxikoen mundua borobila da. Bereziki, ez delako inon bukatzen. Udazkenaren iritsierarekin⁽¹⁾ batera, herritar asko joan dira mendira zizak⁽²⁾ biltzen. Eskualdean 3.000 espezie ezberdin inguru aurki litezke. Euskal Herrian, aldiz, 70.000tik gora.

Batzuk, jateko batzen dituzte. Beste batzuk, aldiz, ikasteko.

Eskualdeko hainbat txoko, taberna eta etxeetan ere, protagonista bilakatu dira azken asteotan perretxikoak. Horren adibide dira, besteak beste, Amurion edo Laudion egunotan egiten ari diren mikologia ekitaldiak.

Perretxikozaleen kopurua mugagabea da. Bilketak, ordea, baditu bere mugak. Araban, esate baterako, gehienez bi kilo batu daitezke pertsonako. Bizkaian, aldiz, librea da; aldundiak ez baitu araurik ezarri.

Jatea erraza da. Bilatzea, zaila. Jose Mari Ibarbia Perretxikozale elkarteko kidearen arabera, intuitzioa eta lekuak ezagutzea dira gakoak: "Pistarik onena mendian ibiltzea da, perretxikoak non dauden gutxiak esango dizute eta".

Mendietan dauden onddoen %10 bakarrik jasotzen da, haren ustez. Hala ere, udazkenean eta udaberrian masifikazioa dagoela dio. "Perretxikoen leherketa dagoenean joatendajendea. Urtean zehar goazenak ez gara hainbeste".

Perretxikoen ahalmenak
Perretxiko gehienek mineralak dituzte, eta proteina gutxi. Horregatik gomendatzen dituzte dietetan: "Ez dute asko loditzen, %80 ura da. Proteinak ere badituzte, baina ez esneak, arrautzak... dituzten neurrian". Elikatzeaz gain, baina, badira betetzen dituzten beste

hainbat funtzio. Medikuntza laborategi gehienetan, esaterako, produktua sortzeko onddoak erabiltzen dira.

Belar denda edo parafarmazietan, berri, minak arindu edo sendatzeko kapsuletan banatzen dira.

Mikologiak artearen munduan ere utzi du bere marka. Horren adibide dira, esaterako, erakusketak.

Kultura egiptiarrean perretxikoak sexuarenekin lotuta dira: "Nik ikusi dudana gutxi gertatu da beti agertzen diragizonekin lotuta. Maieneta inken kulturen ere tailetan ageri dira. Ingelesak ez dute inoiz perretxikoarekin ezer jakin nahi izan, galiziarrek bezala. Herrialde Katalanetan eta Euskal Herrian bakarrik jaso da tradizio hau hemen inguruan", dio.

Aisialdiak ere erabili izan dira perretxikoak, *Psilocybe semilanceata* espeziea kasu. Azken hori, "mongi" ezizenez ezagunagoa da. "Aluzinogeno indartsu bat da; hilgarri izatera iritsi daiteke". Horregatik, abentura eta arriskuaren arteko muga bereizten jakin behar dela pentsatzen du Ibarbiak.

Zizak, botika natural
Mikoterapia zer den ondo dakien pertsonetako bat da Jose Mari Elizalde. Izan ere, perretxikoak sendabide gisa erabili izan dira askotan. Astelehenean, Audioko Mikologia Astearen baitan hitzaldia eskaini zuen adituak.

Solasaldian azaldu zuenez, perretxikoen erabilera terapietan ohiko bilakatzen ari da hainbat herrialdeetan: "Japonia, Txina eta Estatu Batuetan dira eremu honetan arreruntzen daudenak".

Asian, esaterako, onddo infusioak edaten dituzte. "Chaga" (*Ino-*

Minbiziaren kontrako hainbat tratamendutan erabili izan dira perretxikoak. Perretxiko gehienek mineral asko dituzte, eta proteina gutxi. Horregatik gomendatzen dituzte dietetan.



Udazken eta udaberrian ateratzen dira perretxikoak basoetan, hezetasuna eta tenperatura beroak behar dituztelako Argazkia: Iban Pagalday

notus obliquus) eta "Yunn-zhi" (*Trametes versicolor*) izenekoak minbizia duten gaixoen egoera orokorra hobetzeko erabiltzen dira. "Ling Chi" (*Ganoderma lucidum*) izeneko tratamendua ere sarri erabiltzen da gaitz horren aurka. Izan ere, XXI. mendean zehar egindako zientzia azterketetan ondorioztatu denez, perretxikoek gaitasun terapeutiko handia omen dute.

Horren ondorio da farmako batzuk onkologiarako erabiltzea: "*Trametes versicolor* perretxikoan aurkitutako PSK polisakaridoa duela 25 urte minbiziaren kontra erabiltzen zen agenteen %25 zen".

Etorkizunean, jateko baino sendatzeko erabiliko direla uste du Elizalde: "Abantaila eta ondorioak hobeto ezagutuko ditugu, eta zehaztasun handiagoarekin erabili ahal izango dira".

Arriskuak
Jose Mari Ibarbiarentzat, ordea, laguntza adina oztopo sor litzake perretxikoak: "Elementu askok minbizia sor dezakete, horregatik da garrantzitsua informatuta egotea. Hartzen diren tokiak ezin dira kutsatuta egon".

Finean, errepede, zabortegi, industriaguneak... saihestu⁽³⁾ behar direla dio: "Perretxikoak xurgatzetik⁽⁴⁾ bizi dira, eta jaten dugunean guk ere jasotzen ditugu ezaugarri batzuk. Aceros fabrika zegoen tokian mordo daude, parkeetan ere... Baina ezin dira hartu. Ikasteko bada bai, baina jateko ez".

Urterto, intoxikazio kasu asko egoten dira. Horregatik, ondoezten bat sumatzean zuzenean anbulategi edo erietxera jotzea aholkatzen du.

Bitxikeriak
Perretxikoekin batera izenda-pena ere garraiatu da Euskal Herriko munduan barrena. Bartzelonan, Extremaduran eta Andaluzian, esaterako, "perretxiko" deitzen diete zizei.

Jose Mari Ibarbiak ezusteko onak zein txarrak ezagutu ditu. "Behin, batek aste bat izorratuta eman zuela esan zidan. Urduñako perretxikoak jan zituen. Hainbeste deshidratatu zen oinak ere argaldu zitzaizkiola! Azala zintzilik zuen!". Familia bazkarietako pasadizoak eregogoan ditu. "Beste behin, lagun batzuek *Taloma lividum* onddo beltzak prestatu zituzten hamabi lagunentzat. Jan eta 20 minutura etxeko komun guztiak okupatu eta bainutokiaren egin behar izan zuten kaka", dio barrez.

Mikologia Asteak
Asteburu honetan Mikologiaizango da protagonista hainbat herritan. Artziniegan, erakusketa egingo dute larunbatean 11:00etan Goiko Plazan. Amurion eta Laudion, aldiz, taberna eta jatetxeetan perretxikoekin egindako pintxo lehiaketa egongo da. Leku ezberdinetan, zizekin egindako jakiak frogatzeko aukera egongo da. Igandean, aldiz, perretxikoen lehiaketa gastronomikoa izango da Laudion. Baita erakusketa eta dastaketa ere. "33 urte daramatzagu egiten, ezagutza hedatzeko konferentzien bitartez. Era honetan istripuak saihestu eta ingurumenari errespetua izatea nahi dugu", azaldu du Ibarbiak.

Hiztegia: ⁽¹⁾ Iritsiera, ⁽²⁾ heltzearekin batera / Zizak ⁽³⁾, perretxikoak, saihestu ⁽⁴⁾, ekidin/ xurgatu ⁽⁴⁾, zurrukatu.

Mesede ala kalte, zer egin lezake gehiago perretxikoak?

Ondo ala gaizki jasotzen diren arabera. Normalean ondo batzen dira, baina jendearen masifikazioa handia da.

Jendearen masifikazioa zergatik da arazo?

Batzuk mendia apurtzen dute, ezjakintasunagatik. Perretxiko edo onddo bakoitzak bere funtzioa du. Ezagutzen ez duguna dagoen tokian utzi behar da, beti du funtzioaren bat eta.

Arautegiak perretxikoak mozteko dio. Ni arrankatzearen aldekoa naiz, kontuz egiten baduzu ez duzulako lur azpian dagoena izorratzen. Moztu eginez gero, perretxikoaren oinak utzi daitezke, eta hortaz, bakterioak barrura sartu. Oso garrantzitsua da gure kontsumo edo ikasketarako behar adin ziza arrankatu ostean zuloa estaltzea.

Zer dio perretxikoak biltzeko araudiak?

Arabian legeak gehienez bi kilo jasotze baimentzen du pertsonako, Gipuzkoan bost, eta Bizkaian librea da. Nafarroan, tokian toki ezberdina da. Irati eta Ultzamako basoetan, adibidez, zizak hartzeko ordaindu egin behar den lekuak daude; prezioaren barnean informazioa, bidea... ematen diete. Diputazio bakoitzak nahi duena egiten du.

Lege aldetik hobekien dagoena Suitzakoa da. Espezien arabera kantitateak zehazten dituzte, baita perretxiko bila doazen taldeetako kopuruak ere. Gehienez hiru lagun joan daitezke, salbu ikasle taldeak etab. Ezin dira erremintak erabili, bakarrik eskuz pila daitezke. Eta, parke naturaletatik ateratzean zizak erakutsi eta onak ala txarrak diren esaten dizute.

Gehiegi kontsumitzen dela uste duzu?

Gehiegi komertzializatzen da. Autonomia erkidego bakoitzak bere araudia du. 2009an arautu zuten zer zen toxikoa eta salgarria, baina ez du inork errespetatzen. Jatorria, trataera eta salmenta aztertuko beharko litzateke.

Zein ezaugarri edo funtzio nabarmenduko zenizkioke mikologiari?

Mikologia zientzia berria da, 200 urte bakarrik daramatzagu ikasten. Naturan duen funtzioa ezin bestekoa da. Gaur egungo planeta ez genduke ezagutuko onddoengatik ez balitz. Horri eskerrak berritzen da eta arnasten du lurra. Onddoek duten eragina sekulakoa da, Gernikako arbola onddo bategatik hil zen, *Armilaria mellea* delakoagatik. Bestalde, baso bat beti egongo da hobe zuhaitzetatik gertu badaude perretxiko sinbiotikoak.

Onddoak ezin dira haien kasa bizi, horregatik batzuetan sustantziak zuhaitzek dituztenekin lotu eta elkar elikatzen dira.



"Gaur egungo planeta ez genduke ezagutuko onddoengatik ez balitz"

JOSE MARIA IBARBIA (Muskiz, 1946) Audioko Perretxikozale elkarteko lehendakari oihia da. Mikologia jardunaldi ugaritan hartu du parte. Besteak beste, Gernikan, Caceresen edo Huescan aritu da hizlari.

"Oso ziur egon behar da ziza bat jan baino lehen, bizitza jokoan jar dezakezu"

"2.000 edo 3.000 perretxiko mota inguru egon daitezke Aiaraldean"

"Onddoek duten eragina sekulakoa da; Gernikako arbola onddo bategatik hil zen"

Zeintzuk dira zizak onak diren jateko pistak?

Ezagutzea. Oso ziur egon behar da bat ziza bat jan baino lehen, bizitza jokoan jar dezakezu. Jende asko hil da onddoak jatearen ondorioz, intoxikazioak ere oso ohikoak dira. Liburuetan edo argazkietan begiratzeak ez du balio, garrantzitsua da irakurri eta informatua egotea, baina iruditik perretxikoak identifikatzea istripu larri bilaka liteke. Ez dakizunean, onena elkarrekin mikologiakoetara jotzea da, horretarako daude eta.

Zein baldintza geografiko edo klimatologiko behar dituzte onddoek ateratzeko?

Perretxikoak urte osoan daude, erabilera da aldatzen dena. Jateko perretxikoak udaberrian eta udazkenean ateratzen dira, hezetasuna dagoenean.

Urik eta berorik gabe ez dira ateratzen, tenperatura epelak eta euriteak behar dira, hortaz. Ilargiak ere eragina du, baina ez du mirarik egiten.

Aiaraldean zenbat lekutan aurki litezke?

Askotan. Urduñan Gorobelen "perretxiko" deritzenak oso ezagunak dira, *Calocybe gambosa* espeziekoak, hain zuzen ere. Amurion eta Laudion pinuak daudenez perretxiko mota berdinak topa daitezke. Orozkon, pinua, haritza eta pagoda dago. Gorbela eta oso aberatsa da. Trababakarra bi kiloko muga da, zaintza leze lepo dagoela. Aiaran, haritza dagoenez, dene-

tarik ateratzen da; nik 300 espezie bildu nituen behin. Arazoa karparrak dira.

Nik behin 8 egun eman nituen erietxean, horregatik kanpora joaten naiz. Beraz, hara hor kontuan hartzeko beste gauza bat: esku eta hankak ondo babestuta eraman behar dira.

Zein motatakoak dira?

Espezie askotarikoak daude: *Amanita*, *Agaricus*, *Lepiotos*, *Russulas*, *Bolletus*, *Lactarius*, *Cortinarius*... 2.000 edo 3.000 perretxiko mota inguru egon daitezke Aiaraldean.

Izenek nolakotasuna adierazten dute. *Lactarius*ak esnea jaurtitzen du, *Cortinarius*ak kortinen itxura du... Esne gorri edo laranja botatzen dutenak jangarriak dira.

Zergatik gorde ohi dira hainbeste misterioekin perretxikoak dauden tokiak?

Tradizioagatik, batez ere Urduñako perretxikoen kasuan. Apreziatuak direnez, ez dira ohikoak. Belalduzelaunaldi pasa dira, beraz, sekretu gisa.

Beste arrazoi bat da jendeak salatzeko jasotzen dituela.

Zein da zizak goxo sukaltzeko sekretua?

Niretzat plater gisa jateko baino, osagarri izan behar dira. Gordinak ez jan inoiz, ezta neurri handietan ere. Gizakion aparatu digestiboak ez daude prest onddoen sustantziak jasateko eta gorputzak intolerantziak izan ditzake.

Txarribodak, ohiturei eutsiz

Azaroa hurbildu ahala, herri askotan egiten dira txarribodak eskualdean: Lendoñobeitin, Artziniegan, Zollon.... Batzuek, tradizionalki hil eta zatikatzen dute txerria. Beste batzuek, aldiz, hiltegian. Azaroaren 23an txarribodak historikoki eta sozialki nolako garrantzia izan zuen ezagutzeko aukera egongo da Artziniegako Museoan.



Txerria jaietako protagonista ere izaten da, irudian Laudioko San Blas egunean txerria erretzen Argazkia: Aiaraldea.com

ERREDAKZIOA | I Izar Mendiguren Cosgaya

San Martin egunarekin batera, azaroaren 12an, txarriboda garaia iristen da. Oro har, jaiarekin lotutako ohitura da. Batetik, urtean zehar soberan zegoen janaria edo bazka aprobetxatzen zen. Eta, bestetik, pertsonak, senideak, auzokideak edota herritarak biltzeko aitzakia. Hala dio Luis Anjelek, Artea elkar-teko kideak: "Nahiz eta hozkailurik ez egon, txerriak urte osorako jana ematen zuen. Beste garai batzuetarako bazegoen janaria kontserbatzeko teknika gehiago. Horieta-ko batzuk ikus daitezke Artziniegako Museoan".

Ekitaldi garrantzitsua

Historikoki eta sozialki izan duen garrantzia gogoratu eta ezagutarazteko, Artziniegako Museoan txarriboda antolatzen dute urtero. Ekimena aspalditik dator: "Ofizialki duela 29 urte sortu egin ziren Artziniega Museoa eta Artea Etnografia Elkartea". Hamar urte lehenago, ordea, pertsona batzuk elkartu eta galtzen ari ziren ohiturak, lanabesak, ofizioak... bildu eta gordetzen hasi ziren.

Aurtengo txarriboda azaroaren 23an egingo dute. Bi orduko ekitaldia izango da eta herritar oro gonbidatu dute. Lege debekua medio, txerria hilda eramaten dute, "leku publikobateanezin baita hil". Txerria zatitu eta pausuz pausu atalak erakutsi eta izendatzen dituzte txikie-

nek ere ikasi ditzaten: "Haiek ukitu egiten dituzte eta elkarrikteta txikiak egiten dira. Baserrietan nagusiak elkartzen zirenean egiten zuten bezala, ardo zuria eta bizkotxo banatzen da". Ondoren, odoloste eta txorizoen prozesua nolako den azaldu eta egiten dute. Eta amaitzeko, dastatu.

Bizirik ala hiltzen dagoen ohitura ote dengaldetuta, urte osoan zehar zenbat baserritan zaindu eta hazten den txerria pentsatzeko erantzuten du artziniegarrak. Eskualdean modaberri bat agertzen ari dela dio, hainbat baserritan txerria erosi eta hiltzea, hain zuzen ere.

Ohitura honen etorkizuna ez dau-



Jon Abrisketa

Txarribodetako partaidea

"Korta berdineko txerri bat baino gehiago hiltzen baduzu bigarrenak badaki nora doan"

"Lehen jai baten modukoa zen. Egun handia izaten denez 10 bat pertsona batzen gara"

"Hurrengo egunean haragia hobeto mozteko eskegitzen da etxeko portaletan tripa zabalik txerria"

ka argi: "Baserritarrak desagertzen ari dira eta janaria eskuratzeko horrelako beharrik ez dugu".

Txarriboden arrakastak, baina, herriko marka bilakatu den jakia utzi du: odolosteak. "Artziniegako odolosteak 'de Avelina' izenekoak ziren eta dira. Bilbotik, Amurriotik, Laudioetik... hurbil dagoenez jende asko bertaratzzenzen bila". Juan Anjelen arabera, baserrietako langileek egiten zituztelako ziren fama-tu, egileak eta materialak kalitate onekoak zirelako. "Eta, garestiak ez zirelako", erantsi du.

Zolloko San Martin jaien bueltan ere, ohikoa da txarribodak egitea. Jon Abrisketa zolloarrak 14 urte zituenetik hartzen du parte horietan.

Txarriboda, urratsez urrats

Txerria hiltzeko, lehendabizi urte osoan zehar elikatu egin behar da. Zollon, auzokideen artean egiten dute: "Hemen ia etxe guztietan txerriren bat dago. Lehen jai baten modukoa zen".

Txerria hiltzeko bost pertsona behar dira, "baina egun handia izaten denez 10 bat pertsona batzen gara". "Txerria hil baino egun bat lehenago ez zaio janaririk ematen, txerriak tripak hutsik izan ditzan", dio. Hiltzeko momentuan pertsona bakoitzak aberearen hanka bat eusten du; eta bosgarren lagunak "gantxoarekin" hil. Ostean, odola atera, animalia tripatik zabaldu eta etxeko portalean eskegitzen dute, okela hozteko: "Horrela, hurrengo egunean hobeto zatitzen da". Odolarekin, txorizoak eta odolosteak egiten dituzte. Haragia hobeto kontserbatzeko, aldiz, ura eta gatzarekin beratan⁽⁵⁾ uzten dute bi egunez. Txerri batetik familia batentzat urte osorako okela ateratzen da, Abrisketaren hitzetan.

Animaliek hilko dituztela sumatzen dutela garbi du: "Txerriak egunero ordu berdinetan janaria ematen zaiola daki. Hara ez joateak, inguruko mugimenduak... alertan jartzen dute. Korta berdineko txerri bat baino gehiago hiltzen baduzu bigarrenak badaki nora doan". Tentsio horren ondorio da segidan hiltzen den bigarren edo hirugarren txerriak odola beltzagoa izatea.

Hitzegia: Parada⁽¹⁾, aukera /Txangoa⁽²⁾, ibilaldia / Ostonduta⁽³⁾, ezkutatuta / Kondaira⁽⁴⁾, istorioa / Orozkorantz joz⁽⁵⁾, joanez.

Info+: Artziniegako txarribodaren bideoa



Luis Vil
MUSIKARIA

_Kamerinoa

Musika krisian?

Musikaren industrian krisia da hizpide. Ez dira gutxi disketxetatik datozen aho-tsak. Star-system, pirateria eta interneten musika deskargatzeko plataformen ondorioz musikaren industriak egunak kontatuta ditu. Egia da industria honek amaiera gertu duela, baina memoriarekin atzera eginez gero, musika krisian dagoenaren us-tea gezurra dela ondoriozta dezakegu.

Musika merkaturatzeko euskarri fisikoa; biniloa, kasettea, cd... kontsumorako merkatu kapitalistarekin batera sortu zen, kontsumitzaileak sofaz zerbitzatzeko. Gaur egun, euskarri zahar hauek jakinduri faltsu bilakatu dira; musikak es-presiobide gisa ulertuta ez delako horien beharrik.

Mundu kapitalistaren beharretara egokitutako merkatu batean heziak izan gara. Ezin dugu ahaztu musika airean dagoen zer bait dela, ez dela ikusi ezta ukitzen, ez dela komertzializatzea behar jo eta entzuna izateko. Mp3ak, esaterako, hori erakusten du. Pirateriak merkatuari beldurra ematen dio, baina teknologia berriei beti izan den elementu birtuala izaten jarraitzen du, publiko guztiengana era errazago, demokratikoago eta zuzenagoan iritsiz; mendeetan zehar musikaren historia elikatu duten abesti zahar ezagunak bezala.

Libre komunikatzea, lotuta ez sentitzea, merkatuak ez baldintzatzea... Zer gehiago behar du ba artista batek? Hori bai, horretarako artistikoki kontsumo eta entretenimendurako produktuetan pentsatzeari utzi behar zaio.



_kultura

_kultur leihoa

WEB-GUNEAN KULTUR PROPOSAMEN GEHIAGO
IRAKURGAI ETA ENTZUNGAI www.aiaraldea.com/proposamenak



LITERATURA
**DUMA
KEY**
Edorta Moreno.

"Suspensearen eta izu-psikologikoaren maisu estatubatuarrekin gatzozkiez gaurkoan, bere eleberri berri eta ez oso ezagun bat zuenganatzeko..."



MUSIKA
**MYRON E WITH THE SOUL
INVESTIGATOR**
Mario Corral.

"Bakarlari eta talde asko daude arrakasta lortu dutenak. Baita bikoteak ere. Myron eta E aspalditik ezagutzen ditut, 2008-tik hain zuzen ere..."



ARGAZKI BILDUMA: Udan Maroñon moztutako garia Añeseke erroterra eramateako ospakizuna. Ikus gure web orrian



Izotz ekoizpenaz mintzatuko dira Orozkoko neberetan Argazkia: Aiaraldea.com

Historiaz bustiko dira Orozko eta Aiara udazkenean

ERREDAKZIOA | Eunat Molinuevo

Hainbat irteera, bisita gidatu eta hitzaldi antolatu dira azaroko aste-buruetarako Orozkon eta Aiaran.

Aiarako XIV. Jardunaldi Historikoen baitan, azaroaren 9an, larunbata, Negorta (Zuhatza) eta Ureta (Lanteno) eraikinak bisitatuko dira. Bertan, Juan Manuel González Cembellin historialariak toki horiek Erdi

Aroko dorretxe edo jauregierren zentistak izan ote ziren argituko du Arespalditzako udaletxetik abiatuko den ibilaldian.

Azaroaren 16, 23 eta 30ean ere hitzaldiak egingo dituzte Arespalditzan. Eusko Ikaskuntzaren "Asmoz" fundazioko zuzendari Luis Maria Zaldua Etxabek emango du lehe-

nengoa, "Los seles: primitiva distribución territorial" izenburupean. Hilaren 23an, Juanjo Hidalgo García historialari eta arkeologoa "Yacimiento de Elexazar, nuevas aportaciones a la romanización de Aiaraldea" gaiaren inguruan arituko da. Azkeneko saioak gaztainaren historia izango du aztergai.

Orozkoko jardunaldiak

Bestalde, Orozko Museoa ondo-ko irteerak prestatu ditu: azaroaren 3an izotzaren industria ezagutzeko aukera egongo da eta "Adaragoikoko edo solobarriko nebereak" bisitatuko dira. Felix Mugurutz Auniako kidea izango da ekitaldiaren hizlari eta gidaria. Irteera 9:30ean izango da museotik.

Azaroaren 17an Orozkoko eta Gorbeiaiko paraje ezezagunetako bat bisitatzeko aukera egongo da: Aro Modernoan eraikitako zuhaitz-mintegi bi. Lekua Orozko eta Baranbio herrien arteko mugan dago. Auniako Juanjo Hidalgok gidatuko du ibilaldia.

Azaroaren 22an Orozkoko udaletxeko arkupeetako harrian zizelatu dagoen neurri-patroia, zakuak neurtzeko erabiltzen zena, ikusteko parada egongo da eta "marragero" misterioitsuak ere ezagutuko dira.

Azkenik, azaroaren 24an Blas de Otero poeta oinarritutako ibilbide literarioa egingo da haranean zehar. Hala, bertoko jai, ohitura eta sinismenak ez ezik, burdinolen historia ere ezagutu ahal izango da. Saioa Blas de Otero Fundazioko Ibon Arbaizak zuzenduko du. Informazio gehiago lortzeko museora jo liteke.

Hutsa taldea hirugarren diskoaren grabaketa egiten ari da

Eskualdeko Hutsa bikote akustikoa diska berria grabatzen hasi da. 2010ean kaleratu zuten aurreneko lana. Iaz, bigarrena, "Hutsuneak" izeneko.

Azaroan, aldiz, hirugarren lana argitaratzea espero dute. Kike Morak Bilbon duen estudioan ari dira egiten grabaketa.

Aurreratu dutenez, disko berriak zazpi kanta izango ditu.

Azaroan zehar egingo dute Musikaren Astea Urduñan

Urduñako Oliborio kolektiboa Musikaren Astea prestatzen ari da. Aurreratu dutenez, herriko leku ezberdinetan kontzertuak antolatuko dituzte. Batetik, bertako musika taldeak ezagutarazteko. Eta, bestetik, herritarrei aisialdirako eskaintza luzatzeko.

Asmoa kale kontzertuak eta bestelako ekintzen bidez musikaren mundua zabaltzea da.

TAUPADAZ TAUPADA: Musika librea Kataluniatik

Entzun Aiaraldea Irratian Taupaka sortzaileen elkar-
teak egiten duen irratsaioa



JOSE MANUEL
Etxebarria Ayesta
IRAKASLEA

_Lurpetik

Itzina mitikoa

Itzinako mito hau, Ipiñaburuko S. Goyoagak kontatu zidan. Nik On Jose Miguel Barandiarani kontatu nion Etniker bilera batean, eta garrantzitsua zela-eta, gehiago biltzeko agindu zidan eta halaxe daragoiot gaur egun ere. Aikomen mito etimologiko hau: "Behinola, Itzinako Supelegor kobazulo aurrean ardiekin zeuden neba-arreba bi. Otoz otoz, suge bat agertu zitzairen eta mutilak hil egin nahi zuen baina sugea Supelegorrera sartu zen eta estaldu. Mutilak, barruan, jentil bat ikusi zuen ikazginen eta badiotsu mutilari zein izutu :

- Ez hadi ikaratu. Honelako ikatzik egosten dik hire aitak? hartu, urten atakara eta ikusi.

Mutilak arrebari erakutsi zionean ha ikatza, ene! Urregorria! Eskatu eioz gehiago. Mutilak urre gehiago eskatu zion eta jentilak zaratarik ez egiteko esanaz: "Hor lozorroan dagoen jentiltzarra esnatzen badiuk, hireak egin dik!"

Mutila kontuz zebilen baina urre-hotsak jentiltzarra iratzartu egin zuen. Mutila arineketan hasi zen eta jentiltzarra atzerik hara Supelegorretik Orozkorantz. Eta ia-ia harrapatzeko zeukala, Orozkoko Olarteko kanpai-hotsa entzun zuten eta jentiltzarra botere barik geratu. Horretara, maldizioa bota zion artzainari garrasika: "hire etxean ez duk faltako ezbeharrik". Halaxe gertatu ei zen"

KONTRATATU PUBLIZITATEA

AIARALDEA EGUNKARIAN
EDO WEB-GUNEAN

konsultatu
tarifak eta
eskatu aurrekontua

publizitatea@aiaraldea.com

aiaraldea.com

kirola

TXIRRINDULARITZA

“Irabaztea oso zaila da. Lortzen duzunean pasa dituzun momentu txar guztiak ahazten dira”

JON LARRINAGA (Lezama, 1990) Euskadi taldeko txirrindulari profesionala da. Maiatzean Frantziako Le Tour de Girond itzulia irabazi zuen. Mallorcako Challengean egin zuen profesionaletan aurreneko debuta. “Zure alboan Wiggins, Valverde, Purito... ikustea ikaragarria da”, dio.

ERREDAKZIOA | Xabi Zalbide

JON LARRINAGA lezamarrak Euskaltel Euskadi taldea desagertu litekeela-eta, “oso beltz” ikusten du euskal txirrindularitza eta bere etorkizuna. Hala ere, badu esperantzarik. Euskal Herriko talderen batean fitxatzen ez badute, ez du atzerrira joateko aukera baztertzen.

Zure lehenengo urte honetan hiru garaipen lortu dituzu, ez da marka makala. Nola bizi izan dituzu?

Ikaragarria izan da, ez nuen hori sekula ere espero. Beti saiatzen zara ahalik eta hoberen gauzak egiten eta aurten gauzak ondo atera dira. Irabaztea oso zaila da eta lortzen duzunean pasa dituzun momentu txar guztiak ahazten dira.

Zelan hasi zinen bizikletaren munduan? Nolako bizipenak izan dituzu beheko kategorietan?

Txikitatik ibili naiz Lezama-ko baserrian bizikletarekin, egun osoan nengoen bueltaka. Gero Aiarako taldean apuntatzea erabaki nuen, hor asko ikasi nuen. Eskerrak eman nahi dizkiet Valen eta Alañari ikasitako guztia-
gatik, ni orain hemen egotearen erru handia dute.

Sopelako taldean ere egon nintzen bi urte, eta ostean Naturgas Energia taldean lau urte. Zenbat lagun egin ditudan txirrindularitzari esker...

Hori oso polita da, eta bizitza osorako dira.

Mallorcako Challengean egin zenuen debuta profesionaletan.

Zer sentitu zenuen zeure burua tropeleko “izar handien” ondoan ikustean?

Nire bizitzako amets bat bete egin zela. Zure alboan Wiggins, Valverde, Purito. ikustea ikaragarria da.

Hasieran errespetua ematen dizute baina gu bezalakoak dira eta haiekin egoteak indar gehiago ematen dizu borrokatzeko.

Bigarren lasterketan mendiko saria irabazi nuen eta hori motibazio handia izan zen etorkizunerako. Taldean ere gauzak ondo atera ziren.



Euskadi Fundazioaren taldean ibili zara. Zer balorazio egiten duzu?

Nire bizitzako urterik politena izan da. Hasieratik taldean gauzak ondo atera ziren eta horrek indar gehiago eman zizkigun borrokatzeko hurrengo lasterketetan.

“Ez dakit zein taldetan egongo naizen hurrengo urtean. Euskadiko talde batean posible ez bada atzerrira joan beharko naiz”

terketetan. Gure artean, gainera, oso ondo konpontzen gara eta hori ez da erraz gertatzen beste talde batzuetan. Horregatik egin dugu hain denboraldi ona.

Eskerrak eman behar dizkiet, nire garaipenen zati bat beraiena da.

Hain talde “berezia” izanda, nola ikusten da Europako txirrindularitzaren munduan Euskadi Fundazioa?

Munduan ez dago horrela-ko askorik, urte askotan eginda-ko lana ikusten da mundu osoan. Atzerrian oso ondo ikusita dago proiektu hau.

Eta orain Euskaltelen banaketaren ondorioz Euskadi taldea desagertzeko zorian egonda, Euskadi Fundazioa ez dago bere momentu onenean.

Baina Euskadin dagoen zaletasunarekin seguru aski aurrera joango da.

Nik behintzat esperantza hori dut.

Nola ikusten duzu egoera eta zure etorkizuna?

Oso larri. Hainbat urtetan jende asko egon da lanean proiektu hau aurrera eramateko eta orain desagertzea pena handia izango litzateke.

Nire etorkizunari dagokionez, ez dakit zein taldetan egongo naizen hurrengo urtean.

Euskadiko talde batean posible ez bada atzerrira joan beharko naiz.

Eta oro har nola ikusten duzu euskal txirrindularitza?

Oso beltz. Inoiz baino okerrago Euskaltel desagertuta eta Euskadi taldea bide berean egonda. Hemen bi talde izatetik biak desagertzera pasatu gara.

Horrek orain dela urte bat ezinezkoa zirudien, eta espero dut egoera hau ez luzatzea. Nola hasiko dira orain umeak bizikletan erreferentziarik ez badute, haiek ere haraino heldu ahal direla ikusten ez badute?

Dena ondo joanez gero, zeintzuk dira datorren denboraldiko dituzun helburuak?

Ikasten jarraitzea, gregario ona izateko. Talde on batean egoitea eta lider batentzat lan egitea, hori izango da nire helburua hurrengo urtean.

Badakit ni ez naizela lasterketa asko irabazten duen txirrindularia, beraz besteentzat lan egin beharko dut.

Kirol honetan oinak lurrean izan behar dituzu eta egunero borrokatu, noraino ailegatu ahal zaren ikusteko.

ZIKLOKROSSA:

Ziklokross proba egingo da Laudion azaroaren 2an

ERREDAKZIOA | Aitor Martinez

Larunbat honetan bosgarren ziklokross proba egingo da Laudionko Ellakuriko zelaian. Txapelketa 9:00etatik aurrera izango da.

Emakumeen, gizonen, elite eta gazteen lasterketak egongo dira.

Gizonen probak kategoriatan desberdinak jasoko ditu, adinaren arabera sailkapenarekin: master 30, master 40 eta master 50.

Guztira sei bat orduko iraupena izatea espero da, Roberto Alonso, Laudionko Bizikleta Elkarteko lehendakariak, jakinarazi duenez.

Zirkuitoak, iazkoarekin alderatuta, aldatuta batzuketakoak izango dira. Zuzendaritzatik aurreratu dutenez, Ugarte eliza eta igerilekuen arteko trafikoa eragingo dio, nahiz eta errail bat bakarrik erabiliko duten.

Gainera, eskailerak, lokatza, belarra eta ohiko gainazalek aparte, aurten berrikuntza gisa arrapala bat sartu dute. Ideia, Asturiesetik hartu dute.

Parte-hartze eta maila handia

Partaidetza handia espero da. Iaz 440 txirrindulari hartu zuten parte.

Gainera, ikuslegoaren artean presentzia ere bermatua dago. Izan ere, txapelketa Espainiako Konfederazio Koparen baitan antolatzen da, Laudionko sei probetatik bat izanik.

Horregatik, jatorri desberdinetako kideak espero dituzte antolatzaileek.

Proban soilik kirolari federatuek parte hartu ahal badute ere, ikusleek errazago izango dute, sarrera doakoa izango baita. Alonsok esan duenez, ikuskizun itzela izango da, txirrindularien gaitasun handiak hunkigarriak baitira.

Mundu hori ezagutzen ez duenari oso interesgarria izango zaio. Uste du txirrindulari elkarteetako lehendakariak. Horregatik, jendea bertaratzea animatu du.

“Ohorezko Txakolina”

EUKENI TXAKOLI

JATORRIZ ITZENA
ARABAKO TXAKOLINA
TXAKOLI DE ALAVA
DENOMINACIÓN ORÍGEN

MASALARREINA Z/G. 01468 ARTOMANA - AMURRIO (ARABA)
TELNOA: 945 89 12 11 WWW.EUKENI.NET

ARRATE GESTORIA

Lizentziak
Ibilgailuak
Ziurtagiriak
Dirulaguntzak
Garraioak

Ehiza - Arrantza - Armak
Matrikulazioak - Transferentziak - Bajak
Jaiotzeagatikoak - Azken nahia
Autoenplegua - Lan-agiriak
Txartelak - Bisatuak

Aseguruak - Aurrezki-planak - Finantza-produktuak
Aholkularitza laborala, fiskala eta kontablea

Iturralde 2, 01470 AMURRIO
945 89 02 06

ZERBITZUA EUSKARAZ

Kanpotik ikusita badirudi denbora kentzea bakarrik lortzen duela: ikasketak aurrera ateratzeko denbora gutxiago, lagunekin arratsaldeak eta jai asko entrenamenduengatik aldatzea... Momentu askotan ez da erraza, eta are gutxiago exijentzia altuko eta askotan emaitza gutxiko kirol bat aukeratzen bada, atletismoa esaterako. Momentu zailenetan ere kirol hau egiten jarraitzeko gogoak izateak erakusten dizu zure bizitzako parte egin dela. Baina adikzio honek ematen dituen momentu onak txarrak baino askoz gehiago dira, eta horiek ez dira soilik garaipenak: estatu osotik bidaiatzea, txapelketa garrantzitsuetan parte hartzea, emaitza onak lortzea eta jakina, jendea ezagutzea, ez bakarrik kantidadetik baizik eta kalitateari dagokionez; ezeren truke beren denbora eskaintzen dizun jendea eta entrenatzaileak (urte askotan nire entrenatzaile izan den Edu Frutos esaterako). Kirol guztiek dituzte bi alderdi hauek; momentu txarrek lekzioak irakasten dizkigute eta onak kirol hau praktikatzeko merezi duela erakusten digu. Konbinazio honek egiten du kirola, atletismoa, hain berezi eta hain ezinbesteko inoiz jolas honetan hastea erabaki zuenaren bizitzan.

_Herriko plaza

_agurrak



Karlos eta Josu
lagunak

Zorionak Unai! 6 urte bete ditu gure txikiak.
Ondo pasa zure egunean! Zure lehengusinak.



Mikel
Egia

Urriaren 27an, 8 Urte! Zorionak txapeldun!
Muxu handi bat etxeko guztien partetik.



Eztizen
Rey

Zorionak Eztizen Rey !! Urriaren 31 zure eguna da, espero dugu oso Ondo pasatsea zure egunean! Maite zaitugu!



Aitzol
Campo

Urriaren 30an 6 urte! Zorionak Aitzol, ama, aita, Harri eta lagun guztien partez. Segi hain bihurri, deabrutxo hori! Muxu handi bat.



Txelo
Uriarte

Elkarrekin lortu genuelako Zorionak Txelo!! Ahaztezinak bi gurpilen gainean pasa genituen 11 egun horiek. Urte askotarako tigre!



Urko
Velasco

Zorionak maitia!



Txomin
Egiluz

Zorionak Perretxiko!
Zure familiaren partez, onddo pasa!



_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.com helbidera azaroaren 8a baino lehen eta azaroaren 13ko alean argitaratuko dugu!

_botikak

URRIAK 30

Laudio: FUERTES (Kamaraka 4)
Amurrio: YARZA (Elexondo 33)

URRIAK 31

Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 6)

AZAROAK 1

Laudio: FUERTES (Kamaraka 4)
Urduña: IBARROLA (Foru Plaza 12)

AZAROAK 2

Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)
Urduña: IBARROLA (Foru Plaza 12)

AZAROAK 3

Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)
Urduña: IBARROLA (Foru Plaza 12)

AZAROAK 4

Laudio: MENOYO (Ugarte 5)
Amurrio: QUIJANO (Landaburu 7)

AZAROAK 5

Areta: AIS (Gasteiz 2)
Amurrio: HERNANDEZ (Elexondo 11)

AZAROAK 6

Areta: AIS (Gasteiz 2)
Amurrio: PEREDA (Landako 28)

AZAROAK 7

Laudio: FUERTES (Ardantzazar 9)
Amurrio: HERNANDEZ (Elexondo 11)

AZAROAK 8

Laudio: FUERTES (Ardantzazar 9)
Amurrio: YARZA (Elexondo 33)

AZAROAK 9

Laudio: MENOYO (Ugarte 5)
Amurrio: YARZA (Elexondo 33)

AZAROAK 10

Laudio: MENOYO (Ugarte 5)
Amurrio: YARZA (Elexondo 33)

AZAROAK 11

Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 6)

AZAROAK 12

Laudio: FUERTES (Kamaraka 4)
Urduña: IBARROLA (Foru Plaza 12)

GUARDIAKO FARMAZIAK: 2.500 biztanleetatik beherako udalerriek ez dute guardiarik egiten.

_merkatu txikia

ALOKAIRUAN

PISUA GASTEIZEN
San Ignacio de Loyola kalean
60 metro karratu.
2 logela
550 €
653718732
astakirota@gmail.com

SALGAI

GURPILDUN AULKIA
Elektrikoa
egoera onean
1.500 € (negoziagarria)
685723960 (Laudio)

MOTOALTZURRA SALGAI
Honda markakoa, 6,5 cv
Kutxillak % 90ean
Bi abiaduratako martxak aurrera eta bat atzera
616256632

METRONOMOA
WITTNER Piccolo
Egoera onean,
jatorrizko kutxarekin.
Prezioa 15 euro
facebook.com/comprameloenurduna

BIDEOKAMERA
HANDYCAM DVD203E
Egoera onean, zaindua
(5 orduko erabilpena)
Osagarriak barne
Prezioa negoziagarria: 200 euro
facebook.com/comprameloenurduna

PLATAFORMA BIBRAKORRA
VIBROMAX YV20.
150 W-TAKO 2 motore
Egoera onean, salgai leku faltagatik
Jatorrizko prezioa 1200 euro
Prezioa: 500 euro
Etxera eramateko prest nago.
facebook.com/comprameloenurduna

DOAN

TXAKUR JAIO BERRIAK
Euskal Artzain Txakurra
eta Collie arraza-gurutzaketa
duen txakur eme baten kumeak
Irudiak jasotzeko aukera dago.
ieragar@hotmail.com
618243937

BILA

TXAKURRARENTZAT KOTXE
TRANSPORTINA
Artzain txakurrarentzako bigarren eskuko kotxerako transportina ero si nahian nabil.
sorgintxo_txori@hotmail.com
677083251 (Arrankudiaga)

LAN ESKAINTZAK

UMEA ZAINTEKO PERTSONA
lurretan pertsona bat behar da,
goizetan umea haurtzaindegira eramateko, eta gaixo dagoenean zaintzeko.
659-15 08 50

 **etxaurre**
inmobiliaria

B.O.E. SALGAI ARETAN
Prezioa: 110.000 €
55 m², 2 logela, bainugela, sukaldea, trastelekua, garajea, kanpora ematen du.
Erref.: 156079

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 223.000 €
84 m², 3 logela, 2 bainugela, sukaldea kanpoaldera, herrigunean, berrituta, altzariz hornituta.
Erref.: 167173

PISUA SALGAI ARETAN
Prezioa: 100.000 €
69 m², 2 logela, bainugela, sukalde amerikarra, berrituta, trastelekua, kanpora ematen du.
Erref.: 165785

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 180.000 €
82 m², 3 logela, 2 bainugela, sukaldea balkoiarekin, altzariz hornituta, 2000.urtekoa, trastelekua, garajea.
Erref.: 167345

PISUA SALGAI ARTZINIEGAN
Prezioa: 150.000 €
60 m², 2 logela, bainugela, egongela tximiniarekin, sukaldea kanpoaldera, lorategia, trastelekua, garajea.
Erref.: 164438

ATIKOA SALGAI AMURRION
Prezioa: 240.000 €
170 m², 3 logela, 3 bainugela, sukaldea kanpoaldera, garbitokia, trastelekua, lorategia, bi garaje.
Erref.: 167346
ref: 163142

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 125.000 €
80 m², 3 logela, bainugela, sukaldea kanpoaldera eta balkoiarekin, berriketa beharrezkoa, trastelekua.
Erref.: 167346
ref: 163142

www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50

_herriko plaza

_agenda

10.30 ASTEAZKENA

16:30 AUDIO
HITZALDIA
Emozioen adierazpena berdintasunean
Kultur etxean

18:30 AMURRIO
HITZALDIA
Zaintza partekatua eztabaidagai
Kultur etxean

19:30 AUDIO
IKUS-ENTZUNEZKOAK
Natura iruditán
Zubiko Kurajo etxean

10.31 OSTEGUNA

18:30 OROZKO
HITZALDIA
Euskal dantzen astea: Zapiak
Donibane Aretoan

19:30 OKONDO
AURKEZPENA
Beralagun taldea
Kultur etxean

19:30 AMURRIO
IKASTAROA
Arenalde jatetxearen gastronomia
Arabako txakolinaren txokoan

11.01 OSTIRALA

22:00 AUDIO
KONTZERTUAK
Aiaraldea Sound System jaialdia: Habemus papam, LBF, 94ganzs eta djak
Orbeko etxean

11.02 LARUNBATA

11:00 AUDIO
LEHIAKETA
V.Ziklokross proba
Ellakuriko zelaietan

11:00 ARTZINIEGA
ERAKUSKETA
Erakusketa mikologikoa
Goiko plazan



11:30 URDUÑA
GAZTE ÑAUTADA
Aurkezpen jaialdia
Foru plazan



18:30 OROZKO
IKUSKIZUNA
Dantzarien alardea
Frontoian

11:00 ARTZINIEGA
ERAKUSKETA
Erakusketa mikologikoa
Goiko plazan

18:00 ARTZINIEGA
ANTZERKIA
“Espinazos o callos”
museoan

20:00 ARTZINIEGA
ANTZERKIA
“Espinazos o callos”
museoan

20:00 OROZKO
KONTZERTUA
Euskal dantzen astea: Erromeria
Frontoian

20:30 URDUÑA
KONTZERTUAK
Hilbete, Raperos de Maus, Eromena
Foru Plazan.

11.03 IGANDEA

10:00 AMURRIO
MIKOLOGIA ASTEA
Perretxiko erakusketa, azoka eta dastaketa
Frontoian eta plazan

10:00 AUDIO
MIKOLOGIA ASTEA
Perretxiko erakusketa, lehiaketa eta dastaketa
Herriko plazan

11.05 ASTEARTEA

18:00 AUDIO
SOLASALDIA
Artile ekintza
Kultur etxean

11.07 OSTEGUNA

18:30 AUDIO
SOLASALDIA
GazTertulia
12-17 urtekoekin
Kultur etxean

11.08 OSTIRALA

21:00 OROZKO
BERTSO-AFARIA
Maialen Lujanbio eta Onintza Enbeitarekin
Zubiaurreko eskolan

20:00 ZOLLO
JAIK
Jaien hasiera, Laket erromeria
frontoian

21:30 AUDIO
KONTZERTUAK
Viva Bazooka, DK Dance, Grrzzz taldeak (5€)
Orbeko etxean

11.09 LARUNBATA

09:00 AUDIO
IKASTAROA
Arrisku handiko jakien manipulazioa
Gurutze Gorrian

14:00 ZOLLO
JAIK
Haur eta gazteen bazkaria
Frontoian
16:30 ZOLLO
JAIK
Kantaldia Uluka taldearekin
Frontoian

18:00 ZOLLO
JAIK
Baserritarren olinpiadak
Frontoian

20:00 AMURRIO
ANTZERKIA
“Amigos para siempre”
Amurrio antzokian

20:00 ARTZINIEGA
OLERKIA
Poetaldia
museoan

22:00 ZOLLO
KONTZERTUAK
Agantxo y kutxillo, Ihes-kide eta Tximeleta
Frontoian

11.10 IGANDEA

07:30 AMURRIO
IBILALDIA
Gorobelego martxa
Herriko plazatik

08:30 AUDIO
IBILALDIA
Astaitz mendira
Bus geltokitik

11:00 ARTZINIEGA
ERAKUSKETA
Artisauak
Museoan

17:00 AMURRIO
ANTZERKIA
Glu-Glu ikuskizuna
Amurrio Antzokian

11.12 ASTEARTEA

20:00 ZOLLO
JAIK
Odoloste jana
frontoian

_ikusmiran

ZINEMA

10.31 OSTEGUNA

“LA BICICLETA VERDE”
AUDIOKO LHUI
20:00etan

11.02. LARUNBATA

“EL ARBOL DE LA VIDA”
AUDIOKO LHUI
17:30ean eta 20:00etan / 2€

11.03. IGANDEA

“EPIC”
AMURRIO ANTZOKIA
17:30ean / 3.60€

“MUD”
AMURRIO ANTZOKIA
19:30ean / 4.80 €.

11.04. ASTELEHENA.

“MUD”
AMURRIO ANTZOKIA
20:00etan / 3.60 €.

11.07. OSTEGUNA.

“UNA PISTOLA EN CADA MANO”
AUDIO LHUI
18:30ean.

11.09. LARUNBATA.

“GRAVITY”
AUDIO LHUI
17:30ean eta 20:00etan / 2€

11.10. IGANDEA.

“LAGRANFAMILIA ESPAÑOLA”
AMURRIO ANTZOKIA
19:30ean / 4.80 €.

11.11. ASTELEHENA.

“LAGRANFAMILIA ESPAÑOLA”
AMURRIO ANTZOKIA
20:00etan / 3.60 €.

BEREZIAK

OROZKO

HISTORIA JARDUNALDIK
OROZKO MUSEOAK ANTOLATUTA

11.03. IGANDEA. 09:30ean
“Adarogoikoko nebera, Orozkoko izotzaren industria” bisita gidatua
HIZLARIA: Juanjo Hidalgo
IRTEERA: Orozkoko museotik

11.10 IGANDEA. 10:00etan.
“Tejerías de Unibaso y Usabel” bisita gidatua
HIZLARIA: Felix Mugurutza
IRTEERA: Orozkoko museotik

11.17. LARUNBATA. 09:30ean.
“Arrolamendiko mintegi zaharra” bisita gidatua
HIZLARIA: Juanjo Hidalgo
IRTEERA: Orozkoko museotik

11.22. OSTIRALA. 19:00etan.
“Patron de medida de sacos en el ayuntamiento de Orozko” bisita gidatua
HIZLARIA: Felix Mugurutza
IRTEERA: Orozkoko museotik

11.24. IGANDEA. 19:00etan.
“Blas de Otero ruta literaria siguiendo los pasos del poeta a su paso por Orozko”
HIZLARIA: Ibon Narbaiza
IRTEERA: Orozkoko museoan

AIARA

AIARAKO XIV. HISTORIA JARDUNALDIK
AUNIA ETA UDALAK ANTOLATUTA

10.09. LARUNBATA. 10:00etan
Negorta eta Ureta: Erdi aroko dorreak ala palazio errenazentistak? bisita gidatua Juan Manuel Gonzalekin
IRTEERA: Arespalditzako udaletxetik

10.16. LARUNBATA. 18:30ean
“Los seles: primitiva distribución territorial” hitzaldia Arespalditzako udal aretoan
HIZLARIA: Luis Maria Zaldube

10.23. LARUNBATA. 18:30ean
Elexazarreko aztarnategiaren inguruko hitzaldia Arespalditzako udal aretoan
HIZLARIA: Juanjo Hidalgo

10.23. LARUNBATA. 18:30ean
Gaztaina Euskal Herrian” hitzaldia
HIZLARIA: Alberto Santana

_ezin galdu



BASERRITARREN AZOKA URDUÑAN: Hilabeteko lehehn larunbatero bezala, inguruko baserritarren azoka egingo dute Foru plazan. Goiz osoan zehar egongo da produktuak ikusi, dastatu eta erosteko aukera.

_merkatua

BASERRITARREN AZOKAK
AIARALDEAN

ASTEAZKENA
AUDIO Herriko Plazan
DENETARIK

OSTEGUNA
AMURRIO San Anton plazan
DENETARIK

LARUNBATA
URDUÑA Hileko 1º larunbata
Foru plazan
OROZKO Herriko Plazan
OGIA ETA GAZTA

* Hamabostaldi honetan ez dago
Azoka berezirik

PREZIO ORIENTAGARRIAK
MERKATUETAN

BARAZKIAK
Tomatea 3 €/kg
Letxuga 0.80-1 €/kg
Azelgak 2 €/kg
Lekak 2 €/kg
Friijitzeko piperra 1-1.5 €/kg
Pipermorroa 6 €/kg
Kalabaza 2 €/kg
Kuiatxoa 0.60 €/kg
Indabak 8-10 €/kg
Porrua 1.50 €/sorta

BESTEAK
Arrautzak 3 €/dozena
Gari ogia 2.30 €/kg
Idiazabal gazta 16 €/kg



Ruben Gonzalez



Ainhoa
Comas
BERTSOLARIA
_Leihotik

Olga Artiñano

“Norbere buruarengan sinistu beharra dago konkistatzailea izateko”

OLGA ARTIÑANO (1968, Audio) sokatirako kirolaria da. El Conquistador del Fin del Mundo telebistako lehiaketan hartu zuen parte. Kamera atzealdeko irudia erakutsi du.



ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren

Olga Artiñano erizaina da ogibidez, baina eguna kirolari eta ama bezala ere osatzen du.

Sokatiran bezala, injustiziaren kontra eta kirol gutxituen alde egin beharko litzatekeela tira pentsatzen du.

45 urte, ama, kirolaria, erizaina. Zure lan egunak ez dira zortzi ordukoak, ezta?

Denetarako denbora ematen du. Jendeak beti galdetzen dit ea nola egiten ditudan hainbeste gauza; antolakuntza da gakoa. Nire gizonak eta umeek ere laguntzen dute etxean. Niretzat zaletasuna da sokatira, lana erizaintza da.

Oraintsu irabazi duzue munduko sokatira txapelketa. Zuk, nori jarriko zeniok urrezko domina?

Kirolari guztiei. Kirol gogor eta gutxituak

egiten dituen jendeari. Lan gogorra egiten dugu. Eta, batzuetan ez da baloratzen, ez delako ikusgarria.

Zein sokari egin beharko litzaiok jendartean tira?

Injustiziaren kontrakoari eta kirolean bezala gutxituen aldekoari.

Zelako osasun egoeran dago sokatira gaur egun?

Larri. Garai batean denboraldi ona izan zuen.

Sokatiraren lurra gogorra da, talde gutxi daude eta entrenamendu oso gogorak egin behar dira. Azaroan hasten gara entrenatzen, korrika, pesekin, polearekin...

“El Conquistador del Fin del Mundo” telebista saioan ere parte hartu zenuen. Zelako esperientzia izan zen?

Ez zen nik espero nuena izan, ezberdina izan zen.

Ni kirolaren pentsamendurekin joan nintzen; eta ez da hori

izan. Nahi dutena reality bat egitea da. Orain, denbora pasa denez lagunak egin nituela eta Argentina zoragarria dela esan dezaket.

Telebistak zer bilatzen ditu, pertsonak ala pertsonaiak?

Orain batez ere pertsonaiak. Denetarik pertsonak daude: kirolariak, jatorrak...

Horrelako programa bat muntatzeko denetarik egon behar da: kirola, realitya...bizia izatea nahi dutelako.

Zer behar da munduko konkistatzaile izateko?

Ez dakit. Norbere buruarengan sinistu behar da konkistatzaile izateko. Zure buruarekin ondo egon behar zara mundua konkistatzeko.

Eta zuri? Zer gustatuko litzazuke munduan konkistatzea?

Dena dut: seme eta gizonarekin familia zoragarri bat, lanean eta kirolean ondo nago... Zer gehiago eska daiteke?

Hitzak

Zaila egiten da batzuetan idaztea. Beharbada, ideia gehiegi ditugulako buruan, edo ideia horietatik bat ere ez dugulako nahikoa garatu. Paperraren gainean zentzua izateko behar bezain beste ez, behintzat. Dena den, arraroa da nola behin idazten jarrita hitzak bakarrik etortzen diren. Eta, askotan, pentsatzeko gai ez girela uste genuen zerbait agertzen da pantailan.

Egunkarietako berririk gordinen testigu zein gezur handien hedabide dira hitzak. Hala ere, ederra da: oinez joateko ezinezkoak diren lekuetara joan gaitzkeelako, existitzen ez diren bideetatik gure hitzen bitartez ametsetar bidaia.

Zaila egiten da batzuetan idaztea, gure barneko sentimendurik sakonak nori esan ez izanagatik gure buruari idatziz kontatzen dizkiogunean. Beldurragatik akaso, edo gizarte honetan gauza politak esatea itsusiak baino errazagoa delako, baina seguru paperak jaso dituela beste inork baino hitz polit gehiago.

badu, bada

VITORIA - GASTEIZ
Ignacio Aldecoa Kultura Etxea

JARDUERAK



Urriak 29
Asteartea 18:00

Joan Pérez de Lazarragaren bisita (1547-1605)

Aktorea:
Iker Ortiz de Zarate

XVI. mendeko arabar idazlearen bisita
Elebitan

Urriak 30
Asteazkena 19:30

Gihar eta hizkuntz-erradiografia
Kirol profesionalen

Alvaro González de Galdeano, Augusto Ibáñez "Titin", Gaizka Toquero.

Mahai ingurua
Gaztelan

Urriak 31
Osteguna 18:00

Bisita
Gidatua

Gorka Aginagalde
Arabar aktore, umorista eta kantaria

Euskaraz

Azaroak 11
Astelehena 10:00 / 16:00

Egun on,
zer nahi duzu?

Artez Euskara Zerbitzua
Lantegia

Euskaraz

Bisita gidatu orduak
10:00, 12:00, 16:00, 18:00

Leku mugatua
Izena eman: jarrieta@alava.net
945181818 luz 2442

www.badubada.com